

BESTELAKO XEDAPENAK

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

3067

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 25ekoa, Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, suspertze, eraldatze eta erresilientzia planaren turismo-establezimenduetarako ekipamendua berritzeko inbertsioetarako eta sektore horri lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako laguntza-programaren oinarri arautzaileak onartzen, deialdia egiten eta argitaratzen dituen – Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU.

Energiaren Euskal Erakundea Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren mendeko zuzenbide pribatuko erakunde publikoa dugu, eta bere gain hartzen ditu aurrezpena eta energia-efizientzia, energia-baliabide berriztagarriak, energia-dibertsifikazioa eta energia-azpiegituren sustapena bultzatzera bideratutako jardunak, betiere Euskadiko Autonomia Erkidegoaren esparruan.

Ilido horretan, EEE hainbat ekintza garatzen ari da 2030erako 3E-2030 Euskadiko Energia Estrategian jasotako helburuak betetzeko. Jarduketan horien artean aipatzekoak dira zenbait laguntza-programa, izan ere, programa horien bidez energia-efizientzia eta energia-berriztagarrien aprobetxamendua sustatu nahi baita jarduera-sektore guztietan.

2022ko apirilaren 7ko 83. zenbakiko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren Enpresa Turistikoen Efizientzia Energetikoko eta Ekonomia Zirkularreko Proiektutarako Finantzaketa Linearen 2022. urteko aurrekontuari dagokion kredituaren lurralde-banaketari buruzko 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakia (aurrerantzean «2022ko martxoaren 29ko TSK Erabakia») argitaratzen duen Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko martxoaren 31ko ebazpen bidez ezarri zen ostatu turistikoen titularrei laguntzak emateko autonomia-erkidego edo hiri autonomo bakoitzaren oinarri arautzaileak bideratu behar zituen esparru erkidea, eta betiere turismo-enpresetako efizientzia energetikoko eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako finantzaketa-programa egikaritzeko helburuarekin.

Turismo Sektoreko Konferentziaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakian xedatutakoari jarraikiz, 3.942.120 euroko dirulaguntza eman zaio Euskal Autonomia Erkidegoari.

Ondoren, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaia, 4. inbertsioa, 2. azpineurriaren esparruan 119,6 milioi euroko zenbateko totalaz Turismo Enpresen Energia Efizientziako eta Ekonomia Zirkularreko Proiektutarako Finantzaketa Linearako Turismo Sektoreko Konferentziaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakian aurreikusitako 2023ko aurrekontuaren kargurako kredituaren lurralde-banaketa zabaltzen duen Turismo Sektoreko Konferentziaren 2023ko abenduaren 29ko Erabakia argitaratzen duen (aurrerantzean «2023ko abenduaren 29ko TSK Erabakia») 2022ko martxoaren 29ko TSK Erabakian jasotako banaketa-irizpideei buruzko Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2024ko urtarrilaren 23ko Estatuko Aldizkari Ofizialean (20. zk.) argitaratu zen 2024ko urtarrilaren 5eko Ebazpenaren bidez zehaztu ziren autonomia-erkidego eta hiri autonomo bakoitzari zegozkion zenbatekoak, inbertsio honetarako 2023ko aurrekontuaren kargura transferitu beharrekoak, eta proiektu finantzaragarien tipologia zabaltzen, lurralde bakoitzean funtsen banaketa turismo-azpisektore guztien premia espezifikoari jarraikiz egin ahal izatea errazteko.

EAERI 2023. urterako esleitutako aurrekontua 2.773.400 euro izan zen, eta bi erabakien aurrekontuen batura 6.715.520 euro izan zen guztira.

2023ko abenduaren 29ko TSK Erabakiaren 1. oinarrian xedatuta dagoenez, 2022ko transferentziaren konprometitu gabeko baliabideak edo, deialdia egiten duen autonomia-erkidegoaren edo hiri autonomoaren ustez, jasotako eskaeren kopurua kontuan izanda konprometituko ez direnak, 2023ko abenduaren 29ko TSK Erabakian barne hartutako jarduerak finantzatzera bideratu ahalko dira era berean. Zentzu honetan, badago konprometitu gabeko aurrekontu-gerakin erabilgarria 2023ko abenduaren 29ko TSK Erabakian barne hartutako jarduerak finantzatzeko.

Programa hori egikaritzeak lagunduko du Europar Batasuneko araudian ezarritako ingurumen-eta energia-helburuak lortzen, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoko emisioen murrizketa bultzatuko duten jarduketak eginez, 2018/2002 Zuzentarauak berrikusitako 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, energia-aurrezpenaren bidez, energia-efizientziaren hobekuntzaren bidez eta energia berriztagarrien aprobetxamenduaren bidez.

Azaldutako guztia dela eta, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– EEE Energiaren Euskal Erakundearen zuzendaritza-organoen eginkizunak arautzen dituen martxoaren 5eko 64/1985 Dekretua bigarren ezarritakoari jarraikiz, onartzea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia planaren turismo-establezimenduetarako ekipamendua berritzeko inbertsioetarako eta sektore horri lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako laguntza-programaren oinarri arautzaileak eta dagokion deialdia. Programaren edukia ebazpen honi erantsen zaio, I. eranskin gisa.

Bigarrena.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 8.3 artikuluari jarraikiz, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian oso-osorik argitaratzea ebazpen hau, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia planaren turismo-establezimenduetarako ekipamendua berritzeko inbertsioetarako eta sektore horri lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako laguntza-programari dagozkion oinarri arautzaileak onartzen dituenak.

Hirugarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio EEEko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Bilboko administrazioarekiko auzien auzitegietan, bi hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Bilbao, 2025eko ekainaren 25a.

Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusia,
MIKEL AMUNDARAIN LEIBAR.



ERANSKINA

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren turismo-establezimenduetarako inbertsioetarako eta sektore horri lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako ekipamendua berritzeko laguntza-programa - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU

- Oinarriak -



Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren turismo-establezimenduetarako inbertsioetarako eta sektore horri lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako ekipamendua berritzeko laguntza-programa - Europar Batasunak finantzatua - NextGenerationEU

1. Programaren xedea, araubide juridikoa eta pizgarriaren izaera

- 1.1. 2022ko apirilaren 7ko 83. zenbakiko Estatuko Aldizkari Ofizialaren argitaratutako *Europar Batasunak (NextGenerationEU) finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren Turismo Enpresen Energia Efizientziako eta Ekonomia Zirkularreko Proiektuetarako Finantzaketa Linearen 2022. urteko aurrekontuari dagokion kredituaren lurralde-banaketa buruzko 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakia argitaratzen duen Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko martxoaren 31ko ebazpenak* (aurrerantzean, «2022ko martxoaren 29ko Turismo Konferentzia Sektorialaren Akordioa») ezarri zituen turismo-ostaturako establezimenduen eraberikuntza bizkortzea ahalbidetuko duten neurriak ezartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eraikin horiek errendimendu energetikoa hobetzeko, haien energia-kontsumoa gutxitzeko eta sektore turistikoaren lehiakortasuna hobetzen laguntzeko.

Ondoren, 2024ko urtarrilaren 23ko Estatu Aldizkari Ofizialean (20. zk.) argitaratutako Turismo Sektoreko Konferentziaren 2023ko abenduaren 29ko Erabakia (aurrerantzean, «2022ko abenduaren 29ko TKS Akordioa») argitaratzen duen *Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2024ko urtarrilaren 5eko ebazpenak* zabaltu egin zuen Turismo Enpresen Energia Efizientziako eta Ekonomia Zirkularreko Proiektuetarako Finantzaketa Linearako Turismo Sektoreko Konferentziaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakian aurreikusitako 2023ko aurrekontuaren kargurako kredituaren lurralde-banaketa, 119,6 milioi euroko zenbatekoaz, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (aurrerantzean, «SEEP»).

2023ko abenduaren 29ko TSK Erabakiaren lehenengo artikuluen hirugarren apartatuak autonomia-erkidegoei eta hiri autonomoei ahalbidetu egiten die erabakian zehaztutako jarduerak finantzatzea, betiere baliabideak ez badira konprometitu edo ez badira konprometituko jasotako eskaeren kopuruaren arabera.

- 1.2. 2022ko transferentziaren baliabideen gerakina dagoenez, eta EAEn dauden turismo-establezimenduen eta sektore horrekin lotutako jarduera ekonomikoak dituzten enpresen energia-efizientzia areagotzeko helburua duten lehentasunezko helbururekin, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren turismo-establezimenduetarako inbertsioetarako eta sektore horri lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako ekipamendua berritzeko laguntza-programa hau argitaratzen da (aurrerantzean, «Programa» edo «Laguntza Programa»).

Behin dagozkion zeharkako kostuak (87.793,00 euro), laguntzen azken hartzaileei bideratutako gehieneko zenbatekoa 6.000.000 euro izango da, hori guztia 3. oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

- 1.3. «Lehiakortasunaren eremuko jarduketa bereziak» 4. Inbertsioan bat hartutako jarduketa bat da Programa honen egikaritzea, «Turismo sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana» 14. osagaien bildutakoa. Programak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren CID 227an ezarritakoa betetzea du helburu. Mugarri/helburua betetzen dela egiaztatzeko, Batzordearen Erabakiaren Eranskinean ezarritakoari jarraituko zaio. Erabaki horren bidez onartzen dira 2021/241 Erregelamenduaren arabera, edo ondorengo aldaketen bidez, hala badagokio, Batzordearen eta Espainiaren arteko Xedapen Operatiboak.

Era berean Europar Batasuneko araudian ezarritako ingurumen- eta energia-helburuak lortzen lagunduko du, ostaturako edo EAEko turismo-sektoreari lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako dauden eraikinak eraberritzeko jarduketak eginez, eraikin horien erabilera eta eraikinen titularren izaera juridikoa edozein izanda ere, azken energia-kontsumoa eta karbono dioxidoko emisioen murrizketa bultzatuko dutenak, 2018/2002 Zuzentarauak berrikusitako 2012ko urriaren 25eko 2012/27/EB Zuzentarauaren 7. artikulua ezarritakoari jarraikiz, energia-aurrezpenaren bidez, energia-efizientziaren hobekuntzaren bidez eta energia berriztagarrien aprobetxamenduaren bidez. Gainera, EAEko enpresen



lehiakortasuna handitzea ahalbidetuko du horrek, energia-efizientziaren eta ekonomia zirkularraren arloetako estandar handiak txertatuz, enpresa horien karbono-aztarna eta energia-kostuak murriztuz.

Jarduketek etiketatze klimatikoan lagunduko dute (024 - Energia-efizientzia eta frogapen-proiektuak ETEetan eta babes-neurriak), ingurumen-ekarpena % 40koa izanik otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan IV. eranskinaren arabera (aurrerantzean, 2021/241 (EB) Erregelamendua).

Aipatzekoa da, gainera, 2022ko martxoaren 29 Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakitik eratorritako laguntza-programa honen deialdia justifikatzen duten arrazoi eta helburuak erabat lerrokatuta daudela Eusko Jaurlaritzaren Energia Politikaren helburuekin, hau da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategia dokumentuan (3E2030) gauzatutakoekin. 2030erako Euskadiko Energia Estrategiaren misioa, beharrezkoa den bultzada publikoaren bidez, energia-kontsumoan efizientzia gehitzekoa da eta, horrekin batera, energia-sistema lehiakorrago, jasangarriago eta seguruago bat lortzea, ingurumen-inpaktua gutxitu denez, kontsumorako edo produkziarako energia gutxiago beharko denez, eta kanpo energia-baliabideekiko dependentzia murriztuko denez.

- 1.4. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurreratzean, «DLO») 8.1 artikuluan xedatutakoaren eta dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen (aurrerantzean, «20/2023 Legea») 6.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, EEEn Zuzendaritza Kontseiluak, 2025eko otsailaren 5ean egindako bileran, 2025-2028 urteetarako EEEn Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen.

Zentzu honetan, laguntza-programa honek honako helburu hauek lortzen lagundu nahi du:

- Espero den subentzionatutako jarduketa kopurua: 2.000.
- Subentzionatutako energia-proiektuetan egindako inbertsioak 7,5 M€.
- Espero den energia-aurrezpena: 86 tep/urte.

EEEn 2025erako Dirulaguntza Plan Estrategikoa honako helbide honetan dago eskuragarri: <https://www.eve.eus/eu/gardentasun-ataria/energiaren-euskal-erakundea>

- 1.5. Laguntza-programa honen barruan ematen diren dirulaguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzat hartuko dira.
- 1.6. Laguntza-programa hau eta programa aplikatuz ematen diren dirulaguntzak bateragarriak dira barne-merkatuarekin, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 3. atalean xedaturik dagoenaren arabera, eta salbuetsirik daude tratatu bereko 108. artikuluan Batzordeari jakinarazteko ezarritako dagoen betebeharrak.

Programa honetarako, aplikatzekoak izango dira Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko minimis laguntzei buruzko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzko 2023/2831 zenbakiko (EB) Erregelamenduan (aurrerantzean, «2023/2831 Erregelamendua») ezarritako eskakizunak eta mugak.

Laguntza-programa honen xedeetarako eta 2023/2831 Erregelamenduan araututakoari jarraikiz:

- Enpresatzat ulertzen da jarduera ekonomiko bat egiten duen edozein entitate, bere izaera juridikoa eta finantzaketa-modua edozein delarik ere.
- Enpresa bakartzat ulertzen da elkarren artean gutxienez lotura hauetako bat duten enpresa guztiak:
 - a) Enpresa batek, beste enpresa baten akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak dauka;
 - b) Enpresa batek eskubidea dauka beste sozietate baten administrazio-, zuzendaritza- edo kontrol-organoko kide gehienak izendatu edo kargutik kentzeko;
 - c) Enpresa batek beste bat mendeen hartzeko eskubidea dauka, harekin egindako kontratu bati edo bere estatutuetan edo bere eraketa-eskrituran dagoen xedapen baten klausula bati jarraikiz;



- d) Enpresa batek, beste baten akzioduna izanik edo beste bati elkartuta egonik, bakarka kontrolatzen du, bigarren enpresako akziodun edo bazkideekin egindako akordio bati jarraikiz, haren akziodun edo bazkideen boto-eskubide gehienak.

Beste enpresa baten edo batzuen bitartez a) letratik d) letrara bitartean barne hartzen diren harremanetako edozein daukatenak ere hartuko dira enpresa bakartzat.

2. Laguntzen azken pertsona hartzaileak

2.1. Honako hauek izango dira laguntza-programa honen 4. oinarrian identifikatutako jarduketan egiteagatik laguntzen azken pertsona hartzaileak, betiere pertsona horiek egoitza fiskala Espainian badute eta dokumentu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badituzte:

- a) Euskadiko turismoari buruzko 13/2016 Legean ezarritako definizioaren arabera EAEn dauden «turismo-ostaturako establezimenduetako» edo turismo-sektoreari lotutako bestelako jarduera ekonomikoetako egungo eraikinetako, eraikin horien zatietako edo lokaletako jabeak diren izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak:
- Merkatuan ondasunak edo zerbitzuak eskaintzeko jarduera ekonomikoren bat egiten dutenak.
 - Foru Zerga Administrazioako Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen erroldan alta emanak daudenak edo, kasuan-kasuan, Zerga Administrazioako Foru edo Estatu Agentziako Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen erroldan.
 - Eta beren jarduera EJSN Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalako honako kode hauetakoren baten pean dutenak, 2025eko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2025) onartzen duen urtarrilaren 14ko 10/2025 Errege Dekretuan (aurrerantzean, «10/2025 Errege Dekretua») ezarritako erregulazioaren arabera¹:

2009	2025	EJSN
49.31	49.12	Bestelako bidaiarien garraioa tren bidez
49.31	49.31	Bidaiarien garraio erregularra errepidez
49.31	49.34	Bidaiarien garraioa teleferikoetan eta erremonteetan
49.32	49.33	Bidaiarien garraioa eskaerapean gidaridun ibilgailuetan
49.32	52.32	Bidaiarien garraioko bitartekaritza-jarduerak
49.39	49.31	Bidaiarien garraio erregularra errepidez
49.39	49.32	Bidaiarien garraio ez erregularra errepidez
49.39	49.34	Bidaiarien garraioa teleferikoetan eta erremonteetan
49.39	49.39	Bidaiarien lurreko beste garraio motak (beste leku batean sailkatuta ez daudenak)
50.10	50.10	Bidaiarien itsasoko garraioa
50.30	50.30	Bidaiarien garraioa barruko bide nabigagarrietatik.
51.10	51.10	Bidaiarien garraioa, aire bidez
52.21	52.21	Lurreko garraioko jarduera lagungarriak
52.22	52.22	Itsas garraioaren eta barruko bide nabigagarrietakoaren jarduera lagungarriak
52.23	52.23	Aire-garraioko jarduera lagungarriak
55.10	55.10	Hotelak eta antzeko ostatuak
55.20	55.20	Turismo ostatuak eta egonaldi laburrerako beste ostatu batzuk
55.30	55.30	Kanpinak eta karabanentzako aparkalekuak
55.90	55.90	Beste ostatu-zerbitzu batzuk
56.10	56.11	Jatetxeak
56.10	56.12	Otordu-postuak
56.21	56.21	Aldian behingo catering-zerbitzuak



2009	2025	EJSN
56.29	56.22	Catering-zerbitzu erregularrak eta bestelako otordu-zerbitzuak
77.11	77.11	Automobilen eta ibilgailu motordun arinen alokairua
77.21	77.21	Aisialdi eta kirol artikuluen alokairua
79.11	52.32	Bidaia-erakundearen bitartekaritza-jarduerak
79.11	77.51	Automobilen, autokarabaren eta erremolkeen alokairurako bitartekaritza-zerbitzuak
79.11	79.11	Bidaia-agentzien jarduerak
79.12	79.12	Bidaia-antolatzaileen jarduerak
79.90	52.32	Bidaia-erakundearen bitartekaritza-jarduerak
79.90	55.40	Ostatu-zerbitzuetarako bitartekaritza-jarduerak
79.90	56.40	Janari eta edari zerbitzuetarako bitartekaritza-jarduerak
79.90	77.51	Automobilen, autokarabaren eta erremolkeen alokairurako bitartekaritza-zerbitzuak
79.90	79.90	Beste erreserba-zerbitzu batzuk eta zerbitzu horiekin lotutako jarduerak
79.90	82.40	Enpresei laguntzeko zerbitzuetarako bitartekaritza-jarduerak (beste leku batean sailkatuta ez daudenak)
82.30	82.30	Konbentzioen eta erakustazoken antolaketa
82.30	93.29	Aisialdi eta entretenimendu jarduerak (beste leku batean sailkatuta ez daudenak)
85.5	85.5	Beste hezkuntza
85.5	93.1	Kirol-jarduerak
90.04	90.31	Jardura artistikoetarako eta arte eszenikoetarako instalazioen kudeaketa
91.02	91.21	Museoetako eta bildumetako jarduerak
91.03	91.22	Leku historikoetako eta monumentuetako jarduerak
91.04	91.41	Lorategi botanikoen eta parke zoologikoen jarduerak
91.04	91.42	Erreserba naturaletako jarduerak
93.21	93.21	Jolas-parkeetako eta parke tematikoetako jarduerak
93.21	93.29	Aisialdi eta entretenimendu jarduerak (beste leku batean sailkatuta ez daudenak)
93.29	84.25	Suteak itzaltzeko zerbitzuak
93.29	93.11	Kirol-instalazioen kudeaketa
93.29	93.12	Kirol-klubetako jarduerak
93.29	93.19	Kirol-jarduerak (beste leku batean sailkatuta ez daudenak)
93.29	93.29	Aisialdi eta entretenimendu jarduerak (beste leku batean sailkatuta ez daudenak)

¹ Laguntza azken pertsona hartzaileak EJSN kodea egiaztatu beharko du 2025. urteko sailkapenaren arabera. Edozein kasutan, 2009ko EJSN izanik oraindik ere Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiari EJSN-2025 kodifikazio berria komunikatu ez dioten azken pertsona hartzaileei Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako baliokidetasun-taularen azken eguneratzea izango zaiei aplikagarria, 10/2025 Errege Dekretuaren 7. artikulua xedatutakoari jarraikiz.

Salbuetsita daude Euskadiko turismoaren 13/2016 Legea, erabilera turistikoko etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko uztailaren 3ko 101/2018 Dekretua, eta Erabilera turistikoko etxebizitzari eta etxebizitza partikularretako logeiei buruzko Dekretua aldatzen duen otsailaren 25eko 52/2025 Dekretua definitutako erabilera turistikorako etxebizitzak eta erabilera turistikorako etxebizitza partikularretako logeletan ostatu hartzea.



- b) Euskadiko turismoaren 13/2016 Legean ezarritako definizioaren arabera EAEn dauden turismo-ostaturako edo turismo-sektoreari lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako eraikinen, eraikin horietako zatien edo lokalen enpresa ustiatzaile, errentatzaile edo emakidadunak, betiere kondizio hori laguntza-programa honetako eraberritze-lanei ekiteko eta laguntza-programa honetako ekipamenduan esku hartzeko gaitasun espresua ematen dien indarreko kontratuaren bidez egiaztatzen badute, eta aurreko 2.1.a) puntuaren i, ii eta iii apartatuetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte.

Hartzaileen bi kategoriek jarduketa subentzionagarri bererako finantzaketa eskatzen badute, hurrenez hurreneko eskaerek eskaera bakoitzak jarduketa subentzionagarri osoaren gain hartzen duen ehunekoa adieraziko dute, eta bi ehunekoen baturak ezin izango du jarduketaren % 100 gainditu.

- 2.2. Laguntzen azken pertsona hartzaileak pertsona fisikoak direnean, nazionalitate espainola izan beharko dute, edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko Estatu kideetako batekoa edo Suitzako. Europako Erkidegokoak ez diren pertsona atzeritarren kasuan, Espainian izan beharko dute beren egoitza fiskala eta zentro operatiboa, eta gutxienez dirulaguntzako jarduerak emateko aldirako atxiki.

Azken pertsona hartzaileak pertsona juridikoak badira, behar bezala eratuta daudela egiaztatu beharko dute, aplikatzekoa zaien araudiaren arabera.

- 2.3. Azken pertsona hartzaileek jasotzen duten laguntzaren zenbateko osoa dagozkion jarduketa subentzionagarriak ordaintzera bideratuko dute.

- 2.4. Ezin izango dira laguntzen pertsona onuradun izan:

- a) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartutako azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren (aurrerantzean, «DEI») 21. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako bat betetzen ez dutenak.

Testuinguru horretan, laguntzaren eskatzaileak sinatuko du, laguntza-eskaerarekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat, dirulaguntzak edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, bidezko bada, betebeharrak bete izana, egiaztatzen duena, 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

- b) 20/2023 Legearen 13.1, 13.2, 13.3 eta 13.4 artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

Zirkunstantzia hauek betetzen direla egiaztatzeko, Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, 20/2023 Legearen 13.6 artikulutik 13.9 artikulura eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Araudiaren (aurrerantzean, «DAO») 22 bis eta 23. artikuluan. Testuinguru horretan, aurrez aipatutako bi arauak halakorik ahalbidetzen dutenean, aurreko paragrafoan adierazitako artikuluetan deskribatutako zirkunstantzietan ez daudela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal du pertsona eskatzaileak.

Horri dagokionez, zerga-arloko Administrazioan, Gizarte Segurantzaren Administrazioan edota gaituta dagoen eta zirkunstantzia horiek betetzen direla egiaztatzeko prozedura tramitatzen den bitartean beharrezkoa den Administrazioen arteko beste edozein elkarrengarritasun-zerbitzutan kontsultatuko du zuzenean informazioa EEEK. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

- c) DLOaren 13.3bis artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.5 artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietako batean daudenak.

- d) EBk ezarritako zigorraren eraginpean dauden enpresak, besteak beste, honako hauek:

- zigor horiek agintzen dituzten egintza juridikoetan espezifikoki izendatutako pertsona, entitate edo erakundeak,



- EBk hartutako zigorren xede diren pertsona, entitate edo erakundearen kontrolpean dauden enpresak edo haien jabetzakoak diren enpresak, edo
 - EBk hartutako zigorren eraginpeko industrietako enpresa aktiboak, laguntzak dagozkien zigorren helburuen kalterako diren neurrian.
- e) 2023/2831 Erregelamenduaren 1. artikuluan adierazitako sektore batean edo batzuetan diharduten entitateak.
- f) Aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende dauden enpresak, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleituta dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituztelako.
- g) Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea betetzeko, armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea sozietatearen helburu edo jardura guztia edo zati bat den enpresak.
- h) Ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 16. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean erortzen direnak.
- i) Transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean erortzen direnak.

3. Aurrekontu-zuzkidura eta eskaerak aurkezteko epea

- 3.1. 2025eko ekitaldirako EEEn aurrekontuan horretarako ezarritako dagokion kredituaren arabera sei milioi euro da (6.000.000 €) programa honetarako bideratutako diru-zuzkidura totala, aurrekontu hori Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025erako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024ko Legearen bidez onartu zelarik (2024ko abenduaren 30eko EHAA, 252. zk.).

2022ko martxoaren 29ko TSK Erabakiaren 7. artikuluan ezarritakoaren arabera, Programaren aurrekontua handitu ahalko da, **erabaki hori** aldatzen duen edo osatzen duen arauaren bidez EAERI eman dakizkiokeen funts osagarrien kopuru baliokidean, eta dirulaguntzako proiektuen eskariaren eta garapenaren arabera, baita dagozkion mugarri eta helburuen betetzeak duen aurrerapen-mailaren arabera ere, baldin eta eskaerak aurkezteko 3.2 oinarri honetan ezarritako epea igaro ez bada. Era berean, 2022ko martxoaren 29ko TSK Erabakiaren 13. artikuluan adierazitakoari jarraikiz, Programa honi esleitutako aurrekontua murrizteko aukera izango da, ezarritako baldintzak, mugarriak eta helburuak betez.

Deialdi honen helburu diren laguntza-deialdiko dirulaguntzak, Suspertzerako Europar Tresnatik («Next Generation EB») eratorritako finantza-baliabideen bidez finantzatzen dira, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduak ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bitartez.

Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan turismo-sektorean energia-efizientzia lortzeko proiektuei laguntzak emateko bideratutako jarduketak garatzeko funtsak banatu ziren sektoreko konferentzian parte hartu zuen, plan horretatik deialdi honetarako funtsak lortu direlarik, eta, hori horrela, azpiproiektua erakunde autonomikoekin adostutako lankidetzaren bidez egin ahalko litzateke energia-efizientzia bultzatzeko helburu propioarekin.

Hori horrela, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakiak ezarritako lankidetzak-akordioaren arabera, EEERI transferitu zizkion funts horiek.



- 3.2. Laguntza-programa honetarako laguntza-eskaerak aurkezteko epea programa honen deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (aurrerantzean, «EHAA») argitaratu eta hurrengo laneguneko 08:00etan hasiko da eta aurrekontua agortzen den unean amaituko da.

Nolanahi ere, aurrekontu eskuragarriarik egon zein ez, laguntza-eskaerak aurkezteko epea **2025eko abenduaren 31n** amaituko da, asteazkenez, deialdian aurrekontu eskuragarriarik balego ere.

Adierazitako indarraldi hori amaitzean, ez dira eskaera gehiago onartuko. Dena den, esleitutako aurrekontua agortzen bada eta betiere programaren indarraldia amaitu ez bada (2025eko abenduaren 31), eskaerak erregistratu ahalko dira behin-behineko erreserba-zerrendan, eta sarrera-ordenari zorrotz jarraikiz erantzungo zaie, aldez aurreko laguntza-eskaeretan izaten diren ezespen edo errebokazioen arabera, aurrekontua askatu ahalko luketenak, edo deialdian aurrekontu berri bat sartzen bada. Eskaera bat behin-behineko erreserba-zerrendara aurkezteak ez dio ezein eskubide sortuko pertsona eskatzaileari eskaera ebatzen ez den arte.

- 3.3. Epeak zenbatzeko, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, «39/2015 Legea») 30. artikuluan xedatutakoa egongo da indarrean.

4. Jarduketa subentzionagarriak eta laguntzen zenbatekoa

- 4.1. Jarraian zerrendatzen direnak izango dira jarduketa subentzionagarriak, eta, EAEn egikarituta egoteaz gain, I. eranskinean bakoitzeko ezarritako betekizunak bete beharko dituzte:
- 1. motako jarduketa: Ekipamendu eta etxetresna elektrikoen ordezkpen-jarduketak.
 - 2. motako jarduketa: Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzeko jarduketak.
- 4.2. Eskaera onartzeko ezarritako hautatzeko aldiari dagokionez, 2025eko urtarrilaren 1eko edo ondorengo datarekin hartutako, instalatutako, fakturatutako eta ordaindutako dirulaguntzako jarduketak soilik onartuko dira. Horregatik, eskatuko da jarduketa subentzionagarriaren egikaritzeari dagozkion fakturen eta ordainagiriak 2025eko urtarrilaren 1ekoak edo ondorengoak izatea.
- 4.3. Oinarri hauetan **I. eranskinean** ezartzen dira azken hartzaileei zuzendutako laguntzen intentsitatea eta zenbatekoa.
- 4.4. «Kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa (DNSH do no significant harm printzipioa) eta klima-etiketak guztiz betetzen direla bermatuko dute azken pertsona hartzaileek, 2021eko apirilaren 27ko Ministro Kontseiluak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 zenbakiko (EB) Erregelamenduak onartutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren aurreikusitakoaren arabera, baita Espainiako berreskuratzeko eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzei buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian aurreikusitakoaren arabera ere.

5. Dirulaguntzetarako muga orokorrak

- 5.1. **Laguntzen zenbatekoaren muga orokorra laguntzaren azken pertsona hartzailearen eta deialdiaren arabera**

Laguntza-programa honen esparruan ezin izango zaio laguntzaren azken pertsona hartzaile berari eman deialdi berean 300.000 euroko emaitza gainditzen duen laguntzen batuketa.

Era berean, 2023/2831 Erregelamenduak ezarritako dirulaguntza-mugak izango dira aplikagarriak. Zehazki, bere 3. artikuluan adierazitakoaren arabera, Enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen kopuruak ez du gaindituko 300.000 euroko kopurua hiru urteko edozein alditan. Horri dagokionez, laguntza-programa honetako 1.6 oinarrian ezarritako hartuko da «enpresa bakartzat».



5.2. Europako araudi aplikagarria

1.6. oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

5.3. Bateragarritasun-erregimena beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin

Laguntza-programa honen esparruan emandako laguntzak, helburu bererako eman daitezkeen beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera (EAZ Energia Aurrezpeneko Ziurtagiriak,...) edo baliabideekin bateraezinak izango dira, edozein administrazioetik edo erakunde publiko edo pribatutatik datozenak, nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.

5.4. Subentzionatutako jarduerak hirugarrenekin kontratatzea edo azpikontratatea

- a) DLOaren 29. artikuluan, DEOaren 68. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, laguntzaren azken pertsona onuradun bat azpikontratatzeko ari dela esaten da hirugarrenekin adosten duenean dirulaguntzaren xede den jardueraren egikaritze osoa edo partziala. Subentzionatutako den jarduera aurrera eramateko azken pertsona hartzaileak berak egingo dituen gastuen kontratazioa kontzeptu horretatik kanpo geratuko da.

Horri dagokionez, hirugarrenen azpikontratazioa edo kontratazioa subentzionatutako jarduketaren zenbatekoaren % 100 ere izan daiteke, eta subentzionatutako jarduketaren hirugarrenen azpikontratazio edo kontratazioarako, aipatutako DLOaren 29., 68., eta 31. artikuluetan, eta bereziki subentzionatutako jardueraren egikaritze osoa edo zati batena ituntzeko debekua bereziki, salbu eta DEOaren 29.7. artikuluan eta 20/2023 Legearen 31.7 artikuluan jasotako gainerako aurreikuspenak gertatzen badira.

Organo emaileak azpikontratista posibleen datu identifikatzaileak gorde beharko ditu, dagokionean, funtsen azken hartzaile gisa, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduko 22.2.d) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Erakunde onuradunak, edozein kasutan, azpikontratisten berri eman beharko dio idatziz dirulaguntza ematen duen organoari, bai eta kontratuen eta/edo azpikontraten interes-gatazkarik ezaren adierazpenak (IGEA) eman ere. Era berean, laguntzaren eskatzaileak betiere mekanismoak ziurtatu beharko ditu azpikontratistek «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa eta oinarri hauetan ezarritako gainerako baldintzak betetzen dituztela ziurtatzeko.

- b) Dirulaguntzei buruzko Legearen 31.3 artikuluan eta 20/2023 Legearen 30.3 artikuluan xedatutakoa betez, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen (SPKL) aplikazio-araudia bazter utzi gabe, pertsona eskatzailearen izaera juridikoaren arabera, Kontratazio Publikoaz diharduen araudian ezarritako zenbatekoak gainditzen badituzte gastu lagungarriaren zenbatekoak, kontratu txikiari dagokionez (15.000 €, BEZik gabe gainditzen badira, zerbitzu eta horniduretarako, eta 40.000 €, BEZik gabe, obretarako), azken pertsona hartzaileak gutxienez hiru (3) eskaintza eskatu beharko dizkie hornitzaile ezberdinei, obrarako konpromisoaren kontratazioa gauzatu, zerbitzua egin edo ondasuna eman aurretik, salbu eta, haren ezaugarri bereziengatik, merkatuan nahiko erakunderik ez baldin bada haiek gauzatu, eman edo hornitzeko, edo salbu eta dirulaguntza eman baino lehen egiten baldin bada gastua.

Aurkeztuko diren eskaintzen arteko aukeraketa, funtsean, efizientzia- eta ekonomia-irizpideak kontuan hartuta egingo da, baita aukeraketa espreski justifikatuta geratzea ere, baldin eta ekonomikoki onuragarria den proposamena ez denean.

6. Tramitatzeke kudeaketa eta prozedura

39/2015 Legearen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera (aurrerantzean, «91/2023 Dekretua»), laguntzen programa honi lotutako espedienteen tramitazio guztiak (eskaerak, errekerimenduak, jakinarazpenak, zuzenketak eta gainerako gestioak) baliabide elektronikoak erabiliz egingo dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Elektronikoaren egoitza elektronikoaren «Nire karpeta» atalaren bitartez (<https://www.euskadi.eus/micarpeta>) eta Eusko Jaurlaritzaren Tramitagune tramitazio elektronikoko aplikazioa erabiliz, [euskadi.eus](https://www.euskadi.eus) webgunean eta EEEren web-orrian (www.eve.eus) erabilgarri dagoena.



Administrazio-prozeduraren informazio-fitxa batean, tramitaziorako jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak daude eskuragarri, eta horren bitartez, eskaera-formularioan sartzen da; hemen dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/eta/www.eve.eus>.

Dirulaguntzak eskatu eta tramitatzearekin zerikusia duen edozein tramite edo dokumentu elektronikoki aurkezten bada, sinadura elektronikoki aitortu bat eduki beharko du, 91/2023 Dekretuan adierazitakoari jarraikiz. EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikokoan onartutako identifikazioko eta sinadura elektronikoko bitartekoak honako helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/certificados-electronicos>.

Kanal elektronikoki bidez, eskaeraren ondorengo tramiteak, jakinarazpen eta justifikazioak barne, EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/micarpeta>.

Eskaera osatugabea, akatsekin badago, edo oinarri hauetan eskatzen dena bete gabe, hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio pertsona interesdunari zuzentzeko edo eskatzen zaizkion dokumentuak aurkezteko, horretarako bidaliko zaion jakinarazpena jasotzen duen egunetik zenbatzen hasita, eta hori egin ezean, eskaera bertan behera utziko zaio, aurretiaz emango den ebazpen baten bidez, 39/2015 Legearen 21. artikulua arabera.

Pertsona juridiko batek eskaera aurrez aurre edo presentzialki aurkeztuz gero, ezarritako bide elektronikotik kanpo, pertsona interesdunari eskatuko zaio zuzentzeko, eta era elektronikokoan aurkezteko. Horri dagokionez, eskaeraren aurkezpen-data edo -eguntzat joko da zuzenketa egiten den eguna.

7. Laguntza-eskaera eta hautatzeko aldia

7.1. Eskaera independente bat egin beharko da laguntza eskatzen den jarduketa tipologia bakoitzerako. (1. mota - Ekipamenduaren ete etxetresna elektrikoaren ordezkia, edo 2. mota - Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea) eta laguntza eskatzen den kokapen bakoitzerako (eraikina, eraikinaren zatia edo lokala).

Oinarri hauen arabera, dirulaguntzaren eskaeraren inprimakia eta berarekin batera bidali behar den dokumentazioa, 6. oinarrian aipatutako aplikazio informatikoaren bidez bidali beharko da, 3. oinarrian adierazten den epearen barruan.

Eskaeren onarpenerako hautagarritasun-aldiari dagokionez eta programaren 4. oinarrian eta I. eranskinean ezarritakoa betetzen dela egiaztatzeko, faktura eta ordainketa-egiaztagiriz guztiak, edozein izaerakoak ere, (konturatuko kopuruak ordaindu izana edo beste edozein kontzeptukoak) 2025eko urtarilaren 1ekoak edo ondorengoak izatea eskatuko da.

7.2. Eskaeraren aurkezpen-ordenari zorrotz jarraikiz erantzun goaie eskaerei, laguntza-eskaerak ebazteko ordenari dagokionez 8.1 oinarriaren lehenen paragrafoan adierazitakoa bazter utzi gabe, funtsak agortzen diren arte. Aurrekontua agortzen ez bada, eta betiere Programaren indarraldia amaitu ez bada, eskaerak behin-behineko erreserbako zerrendan erregistratzeko aukera izango da, 3. oinarrian adierazitakoari jarraikiz.

7.3. Laguntza-eskaerak oinarri hauetako II. eranskinean adierazitako dokumentazio guztiarekin eta HFP/1030/2021 Aginduan eta HFP/55/2023 Aginduan jasotako betebeharrak bete direla egiaztatzen duten deklarazioekin batera joango dira.

Nolanahi ere, EEEk pertsona eskatzaileari eskatu ahalko dio laguntza-eskaera behar bezala aztertzeke beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

7.4. Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduari dagokionez, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira. Organo emaileak interes-gatazka posiblearen prozesua egin beharko du HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Prozesu horren emaitza bandera beltz bat detektatu dela bada, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu beharko zaio. Horretarako, laguntzaren eskatzaileari bost eguneko epean bere benetako titulartasunari buruzko informazioa aurkeztu dezala eskatuko zaio. Dokumentazioa ez bada ezarritako epean entregatzen, laguntza ukatzen duen dagokion ebazpena emango da.



8. Ebazpena, komunikazioa eta publizitatea

8.1. Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 62.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera (hemendik aurrera, «36/2020 Errege Lege Dekretua»), eta kontuan hartuta aurreikusitako laguntzak bideratzen direla beste proposamen batzuekiko konparaziozko balioespenaren beharrik ez duten jarduketa edo egoera zehatzak finantzatzera, laguntzak emateko ebazpenak emango dira konkurrentzia jarraituko prozedura baten bitartez, behin egoera edo jarduketa subentzionagarriaren konkurrentzia egiaztatu eta eskatutako gainerako betekizunak bete ondoren, deialdietan esleitutako aurrekontu-kreditua agortu arte. Horrenbestez, aurkeztu diren hurrenkera zehatzaren arabera aztertuko eta tramitatuko dira eskaerak.

8.2. Laguntzen Arloa izango da, EEEko Balio Erantsiko Zerbitzuen eta Laguntza Programen Zuzendaritzaren barruan kokatua, espedienteen antolamendu eta kudeaketarako organo eskuduna.

Bere aldetik, EEEko zuzendari nagusiak ebazpena eman eta jakinarazpena eskatzaileari helaraziko dio sei (6) hilabeteko gehieneko epean, dirulaguntza-eskaera aurkeztzen den egunetik kontatzen hasita (39/2015 Legearen 21.2 artikulua). Epe hori igarotakoan ez bada esanbidezko ebazpenik eman, eskaera ezetsitatzat hartuko da, 20/2023 Legearen 22. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, 39/2015 Legearen 25. artikuluan jasotakoaren ondorioetako, baina, hala eta guztiz ere, EEEk egindako eskaeraren esanbidezko ebazpena eman behar du. Ebazpenen jakinarazpen elektronikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>. Hori guztia erreserba-zerrendan dauden eskaeretarako 3. Oinarrian aurreikusitakoaren kaltetan izan gabe.

Ebazpenean, 20/2023 Legearen 22.3 artikuluan adierazitako edukiaz gain, honako hauek adieraziko dira: (i) laguntzaren xede den jarduketa, (ii) laguntzaren zenbatekoa (kopuru gordin gisa, laguntzaren azken pertsona hartzailearen izaeragatik egokiak diren zerga-betebeharrak alde batera utzi gabe), (iii) funtsen jatorria, (iv) interesgarritzat jotzen diren bestelako alderdiak eta (v), hala badagokio, ukatzeko arrazoiak.

Ebazpen horren kontra, prozedura administratiboari amaiera ematen diona, pertsona eskatzaileak hautazko birjartze-errekurtsoa jarri diezaioke EEE Energiaren Euskal Erakundeko zuzendari nagusiari hilabeteko epearen barruan, ebazpena jakinarazten den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, edo bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Bilbon dagokion epaitegian bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Hori guztia, 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluek diotena betez eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluaekin bat etorritik; hain zuzen ere, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duena (aurrerantzean, «29/1998 Legea»).

8.3. Dirulaguntza emateko orduan kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, betiere pertsona onuraduna izateko dirulaguntzen araudiek ezartzen dituzten gutxieneko betekizunak babestuz, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekar dezake, dirulaguntza arautzearen inguruko legeriak xedatzen duenarekin bat etorritik (Dirulaguntzei buruzko Legearen 19.4 artikulua eta 20/2023 Legearen 25 artikulua).

8.4. Azkenik, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak (aurrerantzean, «19/2013 Legea»), Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 30. artikulua eta 20/2023 Legearen 15. artikulua diotenarekin bat etorritik, laguntza programa hau amaitu eta gero, EEEk EHAA-n, bere Gardentasun Atarian eta Euskadiko Dirulaguntzen Erregistro Nagusian argitaratuko ditu (KEB Kontrol Ekonomikoko Bulegora bidaltzearen bidez) laguntza-programa honi jarraikiz emango diren dirulaguntzak, legeak eskatzen dituen datuak ere azalduz bertan, eta 2022ko martxoaren 29ko TSK Erabakian Autonomia Erkidegoetarako ezartzen diren publizitate- eta informazio-alorreko gainerako betebeharrak beteazizko ditu.



9. Inbertsioa egin izana eta laguntzak ordaindu izana justifikatzea

9.1. Laguntza ematen duen ebazpenaren egunetik zenbatzen hasi eta sei (6) hilabeteko gehieneko epean eta, betiere, **inoiz ez 2026ko apirilaren 30a baino geroago**, onuradunek erabat egikarituta, fakturatuta, ordainduta eta justifikatuta behar dituzte izan dirulaguntzako jarduketak.».

9.2. Azken pertsona hartzaileak laguntzaren justifikazioa EEEn egin behar du, elektronikoki, 6. oinarrian adierazitako aplikazio informatikoaren bidez, pertsona fisikoen kasurako 39/2015 Legearen 14.1 artikuluan aurreikusitakoa bazter utzi gabe.

9.3. Laguntzen azken pertsona hartzaileak oinarri hauetako II. eranskinean adierazitako dokumentazio guztia ekarri beharko du. Horri dagokionez, espresuki adierazten da (i) ez dela dokumentazioa aurkezteko inolako salbuespenik ezarriko, eta (ii) jarduketa egin dela justifikatzeko aurkeztuko den dokumentazioak bat etorri beharko duela laguntza eskatzeko formularioan aurkeztutako informazioarekin eta (iii) ez dela bidezkoa ezein aurrerakinen eskaera.

9.4. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari ordaintzeari buruzkoak bete direla jasotzen duten ziurtagirien akreditazioa automatikoki eta ofizios egiaztatuko du EEEK, Nafarroako Foru Aldundiari eta Estatuko Zerga Agentziari buruzko ziurtagirien akreditazioa izan ezik. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du pertsona eskatzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria edo eskatutako dokumentua aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikularen 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

Kasu horretan ez da inolako ordainketarik egingo pertsona onuraduna ez badago egunean zerga-alorrean edo Gizarte Segurantzaren aurrean dauzkan betebeharrei dagokienez, edota zorduna bada, itzulketa-betebeharra dakarren ebazpen baten ondorioz.

9.5. Laguntzaren azken pertsona hartzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa, edo haren legezko ordezkariak, egintza bakarrean eta osorik. Horrela, aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa osatu gabea bada, akastuna bada, edo postaz edo presentzialki aurkezten bada, laguntzaren azken pertsona hartzaileari hamar (10) egun balioduneko epea emango zaio zuzentzeko dagokion eskaera-idazkiaren bidez, laguntzaren azken pertsona hartzaileak zuzentze-jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita (39/2015 Legearen 68. artikulua).

9.6. Orokorrean, EEEK ez du zabalduko edo luzatuko eskatutako dokumentazioa osorik entregatzeko epea, eta justifikazioa Oinarri honetan ezarritako epean ez aurkezteak, laguntza kobratzeko eskubidea galtzea, emandako laguntza errebokatzea eta Dirulaguntzei buruzko Legearen eta 20/2023 Legearen ezarritako gainerako erantzukizunak ekarriko ditu berekin.

9.7. Eskatutako dokumentazioa jasotakoan aztertu egingo da. Aurkeztutako dokumentazioaren balioespena positiboa bada, EEEK laguntza ordaintzeari ekingo dio, funtsen jatorriaren erreferentzia espresua eginda, Trantsizio Ekologiko eta Erronka Demografikorako Ministerioa eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana eta Europako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa aipatuz, horri dagokionez ezar daitekeenari jarraikiz.

Aurkeztutako justifikazio-dokumentazioa kontratatutakoan, ikusten bada, inbertsioa gauzatu eta Programa honen helburua bete arren, dirulaguntzaren azken zenbatekoak hasieran emandakoa baino txikiagoa izan behar duela, laguntzaren errebokazio partzialeko espediente bati emango zaio hasiera.

Aitzitik, azken pertsona hartzaileak 9. oinarri honetan xedatutako justifikazio-betebeharra, oinarriotan, 2022ko martxoaren 29ko TSK Erabakian eta 2023ko abenduaren 29ko TSK Erabakia jasotako beste edozein baldintza edota dirulaguntzei buruzko araudia betetzen ez badu, EEEK laguntza guztiz errebokatzeko espediente bat hasiko du, 12. oinarrian azaldutako mailakatze-irizpideei jarraituz eta proportzionaltasun-printzipioarekin bat etorritz.



Laguntzaren bi errebokazio-kasuetan, laguntza kobratzeko eskubidearen galera deklaratu da, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduaren 89. artikuluan ezarritakoari jarraikiz eta horretarako Dirulaguntzei buruzko Legearen 42. artikuluan aurreikusitako prozeduraren bidez.

- 9.8. Laguntzaren azken pertsona hartzaileak horretarako adierazitako banku-kontuan ordainduko du EEEk dirulaguntza, dagokion laguntza-eskaeran identifikatutako proiektua amaitu ondoren, eta lortu nahi ziren helburuen betetze-maila eta egindako gastuak egiaztatzeko aukera emango duen, eta laguntzaren ordainketa jaso ahal izateko dirulaguntza-araudian ezarritako gainerako baldintza eta betebeharrak bete direla jasotzen duen dokumentazioa egiaztatzeko aukera ere emango duen dokumentazioa EEERi aldez aurretik aurkeztuta.
- 9.9. Ezin izango dute laguntzen ordainketa jaso EAEko Administrazioari eta haren sektore publikoko edozein entitatek eta/edo EEEk emandako izaera bereko laguntzei edo dirulaguntzei dagozkien kopuruak itzultzeko betebeharrak betetzeke dauzkaten laguntzen azken pertsona hartzaileak. Horrelako kasuetan, aztertu egingo da itzuli beharreko dirulaguntza zer egoeratan dagoen, borondatezko aldian edo bide betearazlean.

Laguntzen azken pertsona hartzaileek dirulaguntzen itzulketen betebeharren ordainketak eginak dituztela onartzeko, haxe izango da irizpidea: dirulaguntza horiek emandako EAEko sektore publikoari dagokion edozein entitatearekin edo EEERekin zorrik ez izatea, epealdi betearazlean, dirulaguntzak itzultzeari dagokionez, edo laguntzen azken pertsona hartzaileei premiamendu-bidea ezarri edo aurrera eramaterik ez dagoen kasuetan, borondatezko aldian zorrik ez izatea.

Era berean, laguntzen azken pertsona hartzaileak dirulaguntzak itzultzeko obligazioen ordainketan egunean daudela ulertuko da zorrak geroratuta eta bermatuta daudenean, zatikatuta daudenean edo itzulketa-ebazpena inpugnatu delako etetea erabaki denean (Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren «Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa» 4. artikulua).

20/2023 Legearen 34. artikulua aplikatuz, EEEk deialdi honetan aurreikusitako laguntzak pertsona onuradunei ordaintzea bertan behera uztea erabaki ahal izango du, edozein itzulketa-prozeduraren amaiera baldintzapean geratuko delarik, zeina, EAEko Administrazio Orokorrak, bere Erakunde Autonomoek eta sektore publikoko entitateek emandako izaera bereko laguntze edo dirulaguntzen esparruan hasita egonik, oraindik ere izapidetze-aldian dagoen, etendura horrek ezein kasutan ez duelarik gaudituko diru-itzulketa espedientearen hasierarako proposamenak edo ebazpenak finkatzen duten diru kopurua, berandutze-interesekin.

- 9.10. EEEk laguntzaren azken pertsona hartzaileari eskatu ahalko dio laguntza-justifikazioa behar bezala aztertzeko beharrezkotzat jotzen den informazio eta dokumentazio osagarria.

10. Laguntzaren xede den jarduketaren eta espedientearen dokumentuak egiaztatzea

Dirulaguntzaren xede den jarduketa benetan gauzatu dela eta Oinarri hauetara eta aipatutako gainerako araudira egokitzen dela egiaztatzeko xedearekin, EEE Energiaren Euskal Erakundeak subentzionatutako proiektuak egiaztatu ahalko ditu, egindako inbertsioen zenbait argazki adierazgarri egitea barne. Nolanahi ere den, EEEk beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio guztia eskatu ahal izango du; betiere, dirulaguntzen erabilera egoki bat egin dela ziurtatu nahian.

Dirulaguntza jasotako jarduketaren «in situ» egiaztatzea egingo zaien azken pertsona hartzaileei aldez aurretik idazki bat bidaliko zaie, haren berri emateko EEERen aldetik. Jakinarazpena jasoko dutenek egiaztatze hori «in situ» erraztu beharko dute.

Jakinarazpena bidali ondorengo bi (2) asteren barruan, EEEk azken pertsona onuradunari inbertsioen egiaztatzea egingo duela jakinarazi ondoren, adierazitako inbertsioa burutu dela egiaztatzeko asmoz, ezin bada ikuskapena egin, EEERekin zerikusia ez duten arrazoiak tarteko, idazki bidez jakinaraziko zaio azken hartzaileari hamabost (15) egun balioduneko epea izango duela beste hitzordu bat egiteko, inbertsioen egiaztatzea egin ahal izateko. Hori egin ezean, EEEk dirulaguntzaren zenbatekoa erabat errebokatzeko espedientea abiaraziko du.



Egiaztatzean hartutako informazioa eskaeran aurkeztu den dokumentazioarekin kontrastatu ondoren, eta hasieran emandako dirulaguntzaren kopuruak txikiagoa izan behar duela, edo ez dagokiola dirulaguntzarik jasotzea ondorioztatzen bada, kasuan-kasuan, EEEK dirulaguntza partzialki edo erabat errebokatzeke espedienteak egingo du, eta, hala badagokio, zati bat edo kopuru osoa itzultzeko eskatuko du, legeko beste bide batzuk hartzeko eta zigorrek aplikatzeko eskubideari uko egin gabe.

11. Azken pertsona onuradunen betebeharrak

Deialdi honen xede den laguntzen azken pertsona hartzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte betiere:

- a. Dirulaguntzei buruzko Legearen 14. eta 46. artikuluetan, Dirulaguntzei buruzko Erregelamenduan eta 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluan xedatutakoak, baita Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko EB 2021/241 Erregelamenduan ezarritako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa eta SEEP plana egikaritu eta kudeatzeko aplikatu litekeen Estatuko zein Europako araudian jasotakoak ere. Horrez gain, Programa honen II. eranskinean eskatutako dokumentazioa zein HFP/1031/2021 Aginduan eta HFP/55/2023 Aginduan ezarritakoa betetzeko beharrezkoa izan litekeen gainerako guztia zuzen eta egiazko moduan aurkeztu eta erabilgarri jarriko dute.
- b. Dirulaguntza eman zaion helburu jakinerako erabiltzea.
- c. Kontrol Ekonomikoko Bulegoari, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiari, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioari, EEERI eta eskumeneko beste edozein organori (adierazgarri gisa, eta ez modu mugatzailean, besteak beste Europako Funtsen Idazkaritza Nagusia, Estatuaren Administrazioaren Ikuskaritza Nagusia, Kontu Auzitegia, Europako Batzordea, IBEA, Europako Kontu Auzitegia, Europako Fiskaltza) ematea eskatu ahal dioten informazioa; betiere, dirulaguntza hauek kontrolatzeko dituzten zereginak behar bezala egin ahal izateko eskatzen badiote dirulaguntzen deialdi honen kargura, eta, espezifiki EEEK, 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian eta 2023ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian aurreikusitakoa betez, nahitaez igorri behar duen informazioa.
- d. Kudeaketaren ardura duen organoa den heinean Turismo Sektoreko Konferentziaren 2022ko martxoaren 29ko Erabakian eta Turismo Sektoreko Konferentziaren 2023ko martxoaren 29ko Erabakian agindutako betebeharrak guztiz betetzen direla zaintzea, eta, aldi berean, EEERI zeregin horretan laguntzea. Ildo horretan, laguntzen azken pertsona hartzaileek honako hauek bete eta egiaztatu beharko dituzte espresuki:
 - Eragiketakarekin lotutako transakzioetarako kontabilitate-sistema bereizi bat edo kontabilitate-kode egoki bat erabiltzen dutela bermatzea.
 - Programa honetan eta 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian eta 2023ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian aurreikusitako eskakizunak betetzen dira, baita 38/2003 Legean dirulaguntzen onuradunentzat jasotako betebeharrak ere, eta dagokion garapen-erregelamenduan jasotakoa, eta, horrekin batera, Berreskuratzen Mekanismoa egikaritzeko eta kudeatzeko aplikatzeko izan daitekeen Estatuko zein Europako araudia zein Berreskuratze Plana, eta kasu bakoitzean aplikagarria den Estatu-laguntzen Europako araudia.
 - Programa honen II. eranskinean nahitaez eskatzen den dokumentazioa egokitu egiten zaio Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko, eta aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituen irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritako eman beharreko informazioaren prozedurari eta formatuari.
- e. EEERI, xede bererako dirulaguntza edo laguntzak, diru-sarrerak (energia-eraginkortasuneko ziurtagiriak - energia-aurrezpeneko ziurtagiriak) edo baliabideak eskatu edo lortu izana jakinaraztea, beste administrazio edo erakunde publiko zein pribatu batek emandakoak badira.



- f. Jarduketak aplikatzekoak zaizkion erregelamendu eta araudiak betez egikaritzea, eta jarduketaren osagaiek organismo eskudunaren dagokion homologazioa izan beharko dute. Horrela, laguntzaren azken pertsona hartzaileak bere gain hartzen du dirulaguntzaren xede den proiektua erabat egokitzen zaiola indarreko araudi aplikagarriari, teknikoari edo urbanistikoari, edo beste edozein izaeratakoari.
- g. Egindako jarduketa eta jasotako laguntzaren aplikazioa egiaztatzen duten jatorrizko dokumentuak gordetzea, egiaztatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko dagozkien jarduketaren xede izan daitezkeela kontuan hartuta. Dokumentuen erabilgarritasuna, Europako funtsei aplikatzeko den araudian ezarritakoari lotuko zaio, eta gutxienez hamar (10) urtez laguntza ematen den egunaz geroztik, 2023/2831 Erregelamenduetan jasota dagoenez.
- h. Laguntzen azken pertsona hartzaileak kontabilitate banandu edo bereizi bat izan beharko du laguntzaren xede den jarduketarekin zerikusia duten transakzio guztietarako.
- i. Subentzionatutako ondasunaren titularra izan beharko du pertsona onuradunak, eta dirulaguntza eman zitzaionean kontuan hartu zen xede jakin horretarako erabili beharko du, gutxienez bost (5) urtez laguntza eman zitzaion egunaz geroztik.

Erregistro publiko batean inskribatu daitezkeen ondasunen kasuan, eskrituran jaso beharko da zirkunstantzia hori, baita emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ere, eta elementu horiek nahitaez inskribatu beharko dira dagokion erregistro publikoan. Laguntzaren azken pertsona hartzaileak laguntzako ondasuna eta/edo higiezin basterentzen badu, aldezturik ezarritako denbora-tartea igaro baino lehen, ez da ez betetaketat hartuko helburuko betebeharra 20/2023 Legaren 30.5 artikuluan deskribatutako egoeraren bat gertatzen denean. Edozein kasutan ere, artikulua horretan aipatzen den EEERen baimena lortzeko, honako hau egin beharko du laguntzaren azken pertsona hartzaileak:

- EEERen aurrean egiaztatu, adierazi eta kreditatu, erosle berriak betetzen dituela laguntzaren azken pertsona hartzaile izateko Oinarri hauetan aurreikusitako betekizun guztiak.
- Salerosketaren kontratu-dokumentuan honako hauek adierazi beharko ditu espresuki:
 - Ondasun hori Programa honen laguntzaren xede izan dela.
 - Pertsona erosle berriak laguntzaren azken pertsona hartzailearen posizio juridikoa bereganatzen duela, gutxienez, laguntzaren azken pertsona hartzaile-kondiziotik eratorritako betebeharren indarraldia amaitu arte.
- EEERi egindako salerosketaren berri eman beharko dio, gehienez hiru (3) hilabeteko epean formalizazioaz geroztik.

Laguntzaren azken pertsona hartzaileak betetzen ez baditu basterentze horri dagozkion eskakizunak, jasotako laguntza itzuli beharko du, osoa edo haren zati bat, dagokionaren arabera.

- j. Publizitate-alorreko betebeharrei dagokienez:

- Argitalpenetan, zabalkunde-jardueretan, webguneetan eta, oro har, edozein hedabideetan araututako laguntzen xede den jarduketari buruz egiten duen edozein erreferentziak kasuan-kasuan Suspertze Planaren eta Suspertze Mekanismoaren Irudi Korporatiboaren Eskuliburuan dauden betekizunak bete beharko ditu, hori guztia horri buruzko ezartzen denaren arabera, eta irailaren 17ko 38/2003 Legearen 18.4 artikuluan, uztailaren 21ko 887/2006 Errege Dekretuaren 31. artikuluan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Eskuliburu hori hemen dago eskuragarri:

<https://www.fondoseuropeos.hacienda.gob.es/sitios/dgpmrr/es-es/Documents/MANUAL%20DE%20COMUNICACI%C3%93N%20PARA%20LOS%20GESTORES%20DEL%20PLAN.pdf>

- Testuinguru horretan, Europar Batasunaren finantzaketaren pertsona hartzaileek finantzaketa hori nondik datorren adierazi eta nabarmendu beharko dute, bereziki jarduketa subentzionagarriak eta haien emaitzak sustatzen dituztenean, hainbat eta hainbat erabiltzaileen eskura benetako eta neurrizko informazio koherentea jarri, komunikabideak eta publikoa barne.



Obrak egikaritzen diren bitartean aldi baterako kartel bat jarri beharko da, eta gainera, eta obrak amaitzen direnetik gehienez ere 3 hilabeteko epean, plaka edo kartel iraunkor bat. Kartela edo plaka leku albait ikusgarrienean jarri beharko da finantzatutako proiektuaren barruan, herritarren kopuru albait handienera iristeko. Honako informazio hau bilduko du kartelak edo plakak: (i) Azken hartzailearen izena, pertsona juridiko bat bada; (ii) Proiektuaren/eragiketaren izena; (iii) Egikaritzeko epea (aukerazkoa); (iv) Aurrekontua (aukerazkoa). Era berean, kartelak honako logo hauek bildu beharko ditu gutxienez, Irudiaren Eskuliburuan xedatutakoa errespetatuz: (i) EBren enblema «Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU» adierazpenarekin; (ii) Espainiako Erresumako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren logo ofiziala; (iii) Espainiako Gobernuaren eta Industria, Merkataritza eta Turismoa Ministerioaren logoa; (iv) Eusko Legebiltzarraren enblema; (v) Energiaren Euskal Erakundearen logoa.

- Laguntzen azken pertsona hartzaileak jendeari informazioa emango dio Europako funtsetatik lortutako laguntzaz, Interneteko bere webgunean, webgunerik badu, eragiketaren deskribapen labur bat eginez, proportziozko moduan emandako laguntza-mailarekiko, laguntzaren helburu eta emaitzekin, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz betiere.
 - Kasuan-kasuan, gainera, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernamentu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoa bete beharko du, Programa honetan laguntzen publizitate-betebeharrei dagokienez.
- k. EEEk hala eskatzen baldin badio, azken pertsona hartzaileak konpromisoa hartzen du erregistratutako energia-emaitzen bilakaeraren berri emateko, baita haien dibulgazioa baimentzeko ere, hamar (10) urteko epean, EEEk dirulaguntza ordaintzen duen egunetik kontatzen hasita.
- l. Dirulaguntzaren pertsona onuraduna enpresa bat denean, bere merkataritza-eragiketetan egin dituen gastu subentzionagarriek aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.
- m. 20/2023 Legearen V. titulua aplikatuz eta betiere jarduketa subentzionagarria edo pertsona onuradunaren izaera dela-eta enpresa-deslokalizazio baten kasuan bagaude, pertsona onuradunak nahitaez bete beharko ditu adierazitako 20/2023 Lege horrek 48.-51. artikuluetan deskribatutako betebeharrak eta ondorioak.
- n. Dirulaguntza ematearekin zerikusia duen edozein aldaketa objektibo zein subjektiboren berri ematea EEERI, baita laguntzaren xedea ikuskatzeko eginkizunak betez eskatzen dion edozein informazioaren berri ere.

12. Ez-betetzeak eta itzulketak

Deialdi honetan ezarritako eskakizunak eta gainerako arau aplikagarriak edo, kasuan-kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenean jarritako baldintzak bete ezean, eta ez-betetze espedientea ireki ondoren, dirulaguntzaren errebokazio totala edo partziala eragingo du horrek eta dirua itzuli egin beharko zaio EEERI, berandutze-interesekin batera, eta hori guztia 20/2023 Legearen III. tituluarekiko xedatutakoari jarraikiz, dagozkion lege-egintza eta zigorrak alde batera utzi gabe. Dirulaguntzei buruzko Legearen 37. artikuluan eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako balizkoen eta oinarri hauetan ezarritako gainerako kasuez, eta 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian eta 2023ko abenduaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian kasuez gain, laguntza kobratzeko edo itzultzeko eskubidea galtzea eragin ahalko du:

- a) Dagozkion administrazioetako edozeinen fiskalizazioari buruzko kontrako txostena, baldin eta emandako laguntza itzuli beharra ondorioztatzen badu, administrazio horiei aplikatzekoa den araudiaren edozein ez-betetzetan oinarrituta.
- b) Hala badagokio, beste dirulaguntza edo laguntza batzuk komunikatzeko betebeharra ez betetzea nahikoa arrazoi izango da, emandako laguntzaren itzulketa edo laguntza eskatzeko eskubidearen galera eskatzeko, jarduketaren arabera jasotako eta ez jakinarazitako laguntzaren zenbatekoaren arabera.



- c) Oinarri hauetan ezarritako publizitate-betebeharrak ez betetzeak dagokion laguntza itzultzea ekarriko du berekin, edo, hala badagokio, laguntzaren guztizkoa jasotzeko eskubidea galtzea.
- d) Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH printzipioa), edo klima-etiketa edo DNSH printzipio hori edo klima-etiketa betetzeko baldintzak betetzen ez badira, emandako laguntza osoaren itzulketa edo jasotzeko eskubidearen galera eskatuko da.
- e) Emandako laguntza osoa itzultzea eskatuko da edo laguntza hori osorik jasotzeko eskubidea galduko da laguntzako jarduketaren hainbat kasutan, betiere jarduketa egikaritzeko ezarritako gehieneko daten barruan.

Laguntzaren azken hartzaileak jasotako kopuru guztiak edo batzuk itzuli beharko ditu eta, dirulaguntzen alorrari dagokionez, dirulaguntza ordaintzen den unetik itzulketa bidezkoa dela erabakitzen den egunera arte dagokion berandutze-interesa eskatuko zaio, oinarri hauetan, 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian, 2023ko abenduaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian, DLOaren 37. artikuluan eta 20/2023 Legearen 36. artikuluan ezarritako kasuetan.

Eta helburua erabat betetzera modu esanguratsuan hurbildu delako dirulaguntza partzialki itzuli behar denean, eta pertsona onuradunak oinarri hauei jarraikiz bere konpromisoak eta betebeharrak betetzeko jarduketa nabaria egiaztatzen badu, programa honetan aurreikusitako xede eta helburuen betetze-maila hartuko da kontuan, betiere proportzionaltasun-irizpideen pean. EEEko zuzendari nagusiak du errebokatzeko espedienteak hasarazteko eta ebazteko eskumena, eta, hala dagokionean, dirulaguntza partzialki edo osorik itzularaztekoa.

13. Eskatzaileei informazioa emateko klausula

Datuen babesari buruzko informazioa	
Tratamenduaren arduraduna	Energiaren Euskal Erakundea (EEE) IFZ: Q5150001E Helbidea: Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011, Bilbo (Bizkaia) Telefonoa 94.403.56.00 Harremana DPO: dpd@eve.eus
Helburua	- Zure dirulaguntza-eskaera aztertzea eta kudeatzea eta, kasuan-kasuan, laguntza ematearen ondorioz ezartzen den harremanaren egikaritzapena eta kontrola. - Estatistika-xedeekin tratatu ahal izango dira datuak.
Tratamendua eta kontserbazioa legitimatzea	- Tratamendua ezinbestekoa da guztion intereserako edo tratamenduaren erantzuleari emandako botere publikoak gauzatzeko egindako zeregin bat betetzeko. - Informazioa gordetzea: eskaera aztertzeko epean eta aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan. Laguntza emanez gero, emateko espedientearen zati izango dira datuak eta gorde egingo dira aktibo gordetzen den bitartean eta, ondoren, aplikatzekoak zaizkion legezko epeetan.
Emakiden erakunde hartzaileak	Kontrol-arloko eta 20/2023 Legearen 15.9 artikuluan aurreikusitako alorrean eta kasuetan eskumena duten erakunde eta autoritate autonomiko, lokal eta estatualak, edo Europar Batasunekoak.
Pertsona interesdunen eskubideak	Pertsona interesdunek datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezabatze, eramangarritasunerako eskubideak eta tratamendua mugatzeko edo datuen aurka egiteko beren eskubideak egikaritu ditzakete EEERI idazki bat bidaliz, «datuak babesteko eskubideak egikaritzea» adieraziz, eskubide horiek dirulaguntzen arloko araudian aurreikusitakoaren arabera egikaritu daitezkeen neurrian. Pertsona interesdunek Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari erreklamatzeko eskubidea dute www.avpd.eus



Datuen babesari buruzko informazioa

Dirulaguntzaren azken pertsona hartzaile orok konpromisoa hartzen du, bere dirulaguntza-eskaera adierazitako proiektuaren kudeaketan eta, kasuan-kasuan, ondorengo egikaritzapenean inplikaturako edozein pertsona fisiko/juridikoren edozein datu pertsonal EEERi eman aurretik, arestian adierazitakoari buruz informatuko duela dagokion pertsona fisiko/juridiko, eta aplikatzekoak izan daitezkeen beste edozein eskakizun bete EEERi datu pertsonak behar bezala lagatzeko.

14. Azken xedapenak

1. EEERen erabakiak izaera administratiboa du eta EEER kudeatzen dituen dirulaguntzen jurisdikzio eskuduna, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa da.
2. Programa honetatik eratorritako laguntzen xede diren jarduketatik lortutako irudiak erabiltzeko eskubidea du EEER.
3. Akatsak baldin badaude edo informaziorik eta dokumentaziorik ez badago laguntza emateko kudeaketan laguntzaren azken pertsona hartzailearen aldetik, eta horrek zuzenean eragina badu EEER eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko garaian, laguntzaren azken pertsona hartzailearen erantzukizun bakarra izango da. Horregatik, benetan egindako gastua handiagoa bada ere, laguntza emateko ebazpenean kontuan hartutakoa baino, hazkunde horrek ezein kasutan ere ezin izango du emakidaren zenbatekoa gorantz berrikustea ekarri.
4. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluan eta HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz, laguntzaren pertsona eskatzaileei honako hauei buruzko informazioa ematen zaie:
 - a) Eskatzailearen identitatearen erregistroa eta jasotako funtsen zenbatekoa datu-base batean, auditoriari eta kontrolari begira, eta datu konparagarriak izateko. Pertsona edo erakunde eskatzaileak nahitaez eman beharko ditu funtsen azken hartzailearen datuak pertsona edo erakunde bera ez denean.
 - b) Administrazioak eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22. artikuluan jasotako organo guztiek, JUS/319/2018 aginduari jarraikiz sortutako Titulartasun Errealean Erregistroan bildutako informazioan sartzeko aukera, edota titular errealean gaineko datu horien berri eman ditzaketen Administrazioaren beste datu-base batzuetan sartzeko aukera.
 - c) Sistema horien eta Europako Funtsen Sistemaren arteko informazio-lagapena, aplikatzeko den araudi europar eta nazionalen bildutako aurreikuspenen arabera. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduaren 22. artikuluan 2. ataleko e) letraren eta Finantza Erregelamenduaren 129. artikuluan arabera [(EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2018ko uztailaren 18koa], SEEP planeko funtsak jaso ahal izateko, azken hartzaileek beren gain hartu behar dute, idatziz, Batzordeak, IBEBek, Europako Kontu Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta eskumeneko agintari nazionalak beren eskumenak betetzen dituztela bermatzeko behar diren eskubide eta sarbideak ematea.

Horri dagokionez, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte pertsona onuradunek laguntza horiek lortzeko:

- Europako Batzordeak, IBEB Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak eta Europako Fiskaltzak ezarritako kontrolak gainditu beharko dituzte, eta horretarako dirulaguntzari buruz eskatutako informazio guztia emango zaie erakunde horiei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluari jarraikiz.
- Espresuki baimentzea Batzordea, IBEB, Kontuen Auzitegia eta, hala dagokionean, Europako Batzordea Finantza Erregelamenduaren 1. apartatuko 129. artikulua aitortzen dizkien eskubideak egikaritzera eta berreskuratze- eta erresilientzia-planen barne hartutako eraberrikuntzak eta inbertsio-proiektuak aplikatzeko neurrietarako despoltsatutako funtsen azken hartzaile guztiak behartzea, edo neurri



horiek aplikatzeko esku hartzen duten gainerako pertsona edo erakunde guztiak, eta espresuki baimentzea Batzordea, IBEB, Kontuen Auzitegia eta, hala dagokionean, Europako Batzordea Finantza Erregelamenduaren 1. apartatuaren 129. artikulua aitortzen dizkien eskubideak egikaritzera, eta funtsen azken hartzaile guztien antzeko betebeharrak ezartzera.

5. Oinarri hauek aipatzen dituen dirulaguntzak, besteren artean, honako hauetan xedatutakoaren mende daude:

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituena.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko Turismo Enpresen Energia Efizientziako eta Ekonomia Zirkularreko Proiektutarako Finantzaketa Linearen 2022ko aurrekontuari dagokion lurralde-banaketari buruzko 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakia, eta erabaki horren 3. artikuluan aipatutako arauak argitaratzen dituen Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko martxoaren 31ko ebazpena.
- 2023ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakia argitaratzen duen Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2024ko urtarrilaren 5eko ebazpena, zeinak Turismo Enpresen Energia Efizientziako eta Ekonomia Zirkularreko Proiektutarako Finantzaketa Linearako 2022ko martxoaren 29ko Turismo Sektoreko Konferentziaren Erabakian aurreikusitako 2023ko aurrekontuaren kargurako kredituaren lurralde-banaketa zabaltzen duen, 119,6 milioi euroko zenbatekoaz, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan;
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean bildutako oinarrizko manualak;
- Azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan jasotako oinarrizko manualak;
- Abenduaren 21eko 20/2023 Legea, dirulaguntzen araubidea erregulatzekoa;
- Batzordearen 2023/2831 Erregelamendua (EB), 2023ko abenduaren 13koa, minimis laguntzei buruzko Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoa;
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa;
- Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena;
- Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko, eta aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduren interes-gatazkaren arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.
- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 2025eko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legearen V. kapitulua.
- Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura ematen diren dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko araubide orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua.



- Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpenaren bidez publiko egindako (EHAAren 46. zk., 2002ko martxoaren 4koa) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketa eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-egikaritzeari, kudeatzeari eta jarraipenari buruzko Gobernu Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena.
- «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren egikaritzapenean nahitaez eskatutako iruzurraren aurkako, interes-gatazkari buruzko, finantzaketa bikoitzari eta Estatu-laguntzei buruzko eta ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteari buruzko eskakizunak betetzeko neurrien plana» onartzen duen 2022ko martxoaren 29ko Gobernu Kontseiluaren akordioa, zeina akordioa argitaratzea xedatzen duen Gobernu Idazkaritzako eta Legebiltzararekiko harremanetarako Zuzendariaren apirilaren 6ko 40/2022 Ebazpenaren bidez argitaratu zen (2022ko apirilaren 13ko 74. AHAA).
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko premiazko neurriak onartzen dituen, bere azken xedapenetan lehenaren arabera oinarritzekoak diren xedapenetan;
- 13/2016 Legea, uztailaren 28koa, turismoari buruzkoa.
- 102/2001 Dekretua, maiatzaren 29koa, hotel-establezimenduen antolaketa ezartzen duena, 198/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituen, 396/2013 Dekretua, uztailaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan kanpinak eta beste kanpaketa-turismoko modalitate batzuk arautzeki buruzkoa, 199/2013 Dekretua, apirilaren 16koa, landa-inguruneen turismo-ostatuko establezimenduak arautzen dituen eta 200/2013 Dekretua, uztailaren 9koa, turismo-aterpetxeak antolatzen dituen.
- 10/2025 Errege Dekretua, urtarilaren 14koa, 2025eko Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionala (EJSN-2025) onartzen duena.
- 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena.
- 91/2023 Dekretua, ekainaren 20koa, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.
- 2023ko otsailaren 13ko agindua, Ogasuneko sailburuarena, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeki buruzkoa, baita dirulaguntzak itzultzeki buruzkoak ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.
- 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraispén-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzeko dena.
- 105/2008 Errege Dekretua, otsailaren 1ekoa, eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duena.
- 450/2022 Errege Dekretua, ekainaren 14koa, martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuak onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa aldatzen duena.
- 314/2006 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartzen duena.
- Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudia onartzen duen uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretua.
- 346/2011 Errege Dekretua, martxoaren 11koa, eraikuntzen barrualdean telekomunikazio-zerbitzuetara sartzeko telekomunikazioen azpiegitura erkideak arautzen dituen erregelamendua onartzen duena.
- Laguntza ematen duen administrazioak eta gainerako agintaritzak nazional eta europarrek helburu horrekin erabaki ditzaketen arauak, bai eta adierazitako finantzaketaren jatorriagatik laguntza hauen onuraduna izateagatik ezarrita datozen betebeharrak guztiak ere.

I. ERANSKINA – JARDUKETAK, KOSTU HAUTAGARRIA ETA LAGUNTZEN INTENTSITATEA

II. ERANSKINA - DOKUMENTAZIOA



I. ERANSKINA

JARDUKETAK, KOSTU HAUTAGARRIA ETA LAGUNTZEN INTENTSITATEA

A. JARDUKETA SUBENTZIONAGARRIAK

Laguntza-programa honen esparruan, jarduketa subentzionagarritzat hartzen da ekipamendua eta etxetresna elektrikoak ordeztzea eta barne-argiztapena berritzea (luminariak eta kontrol adimenduneko sistemak) turismo-ostatuko establezimenduetan edo EAEn dauden turismo-sektoreari lotutako beste jarduera ekonomiko batzuetarako direnetan **eranskin** honetan definitutako efizientzia handiko eta energia-kontsumo gutxiko ekipo berriak jartzea. Aldi baterako edo behin-behineko izaera ez dutela kontuan hartzen den eraikin edo establezimendu kontsolidatuen gain egiten diren jarduketak soilik hartuko dira subentzionagarritzat.

Laguntzako jarduketek aplikatzekoa zaien indarreko araudia bete beharko dute, eta beharrezko lizentziak eta administrazio-baimenak eduki jarduketa horiek hori eskatzen badute.

Eskaera independente bat egin beharko da laguntza eskatzen den jarduketa tipologia bakoitzerako. (1. mota - Ekipamenduaren ete etxetresna elektrikoaren ordeztzea, edo 2. mota - Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzea) eta laguntza eskatzen den kokapen bakoitzerako (**eraikina, eraikinaren zatia edo lokala**). Hau da, tipologia bereko eta eraikin bereko, eraikinaren zati bereko, edo lokal bereko jarduketa guztiak eskaera berean barne hartu beharko dira.

Laguntza-eskaerako gutxieneko kostu hautagarria (tipologia bereko jarduketa guztiak hartuko ditu barnean, betiere eraikin berean, eraikinaren zati berean edo lokal berean badaude) 2.000 euro izango da gutxienez. Era berean, 1. motako jarduketetarako (ekipamenduen eta etxetresna elektrikoaren ordeztzea) erositako ekipoko gutxieneko kostu hautagarria (BEZik gabe) 300 euro izango da jarduketa subentzionagarritzat hartzeko.

Ondoren, jarduketa-tipologia bakoitzari lotutako eskakizunak adierazten dira.

A.1. 1. motako jarduketa subentzionagarriak: Ekipamendu eta etxetresna elektrikoaren ordeztzea-jarduketak.

A.1.i) Jarduketa subentzionagarriak

Ondoren adierazitako kategorietako ekipamendu-berriztapenak dira, ekipamendu berria erostea eta hura instalatzea barne, dirulaguntzako jarduketak, betiere ordeztutako ekipo baliokideak kendu direla eta ondoren araudi aplikagarriaren arabera birziklatu direla frogatzen bada. Era berean, energia-kontsumoaren murrizketa esanguratsua lortu beharko da ekipo moten ondorengo zerrendako ekipamendu konbentzionalarekin alderatuta:

- Sukalde-ekipamendua:
 - labeak,
 - kafe-makinak,
 - mahai-tresnen distira-emaileak,
 - frijigailuak,
 - ontzi-garbigailuak eta garbiketa-trenak,
 - erauzketa-kanpainak,
 - beste batzuk.
- Garbitzeko eta lehortzeko ekipamendua:
 - garbigailuak,
 - lehorgailuak,
 - plantxagailuak eta kalandrak.
 - xurgagailuak,
 - beste batzuk.



- Hozteko eta izozteko ekipamendua (hozkailuak, izozkailuak, hozteko armairuak), edozein klimatizazio-ekipamendu salbu:
 - ardoak kontserbatzeko kamerak,
 - minibarrak,
 - beira-arasak,
 - hozteko eta/edo izozteko kamerak,
 - izotz-makinak,
 - tenperatura-eraistaileak,
 - beste batzuk.
- Establezimenduetako hondakinak aurrezteko ekipamendua eta hondakin horien zirkulartasuna sustatzen duten ekipoak, hala nola hondakin-trinkogailuak, prentsak eta briketa-makinak, edo birringailuak.

Eskuratutako ekipoetarako derrigorrezko baldintzak honako hauek dira:

- CE marka.
- Ekipamenduaren fitxa teknikoa.

A.1.ii) Energia-aurrezpenen justifikazioa

Era berean, jarduketa subentzionagarriek energia-aurrezpena lortu eta justifikatu beharko dute, eta ekipoz ekipo egin beharko da (ekipo berri bakoitza ordeztutako ekipo baliokidearekiko konparatuz). Erositako ekipamendu bakoitzak, bakoitza bere aldetik, aurrezpenak lortu behar ditu subentzionagarritzat hartzeko. Jarduketarengatik lortutako azken energiaren aurrezpena honela justifikatu ahalko da:

- Ordeztu beharreko ekipoak/etxetresna elektrikoak zein erositako berriak energia-etiketa badute, aurrezpenaren justifikazioa erositako ekipoaren/etxetresnaren eta ordeztu beharreko ekipoaren/etxetresnaren etiketan ageri den urteko energia-kontsumoa alderatuz egingo da.
- Ekipo berriak energia-etiketa badu, baina ordeztu beharreko egungo ekipoak ez badu energia-etiketa hori, azken hori G bat duen ekipotzat hartuko da. Egungo ekipoaren energia-kontsumoko informazio-etiketari dagoen letra hobetu eta lortutako aurrezpena kalkulatu beharko da.
- Egungo ekipoak eta erositako berriak ez badute energia-etiketarik, erositako ekipo/etxetresna elektrikoaren fitxa teknikoetan edo ezaugarri teknikoaren plaketan eta egungo ekipoaren/etxetresna elektrikoarenetan ageri diren datuak konparatuz egingo dira.
- Edozein kasutan, entsegu edo ziurtapenetan ezagutza eta esperientzia egiaztatu ahalko duen edo kontsumoan izandako aurrezpena bermatzen duen BKE baimendutako kontrol-erakunde baten txostena onartuko da, edo ekipo berriaren enpresa fabrikatzaileak emandako txostena etxetresna elektriko bakoitzaren (ordeztu beharreko zaharra eta berria) ezaugarri teknikoak ziurtatuz aurreikusitako urteko energia-kontsumoari dagokionez.

Kasu guztietan ere, EEEn webgunean eskuragarri dagoen «ekipamenduetan izandako aurrezpenaren justifikazio-fitxa» betez egingo da justifikazioa. BKE baimendutako kontrol-erakundeek eta erakunde independenteek aurrezpenak justifikatzen dituen formatu alternatiboko txosten bat aurkeztu ahalko dute.

A.1.iii) Hondakinen kudeaketa

Jarduerak subentzionagarritzat hartuko dira betiere ordeztutako ekipo baliokideak kendu direla eta ondoren araudi aplikagarriaren arabera birziklatu direla frogatzen bada. Jarduera ordezen gisa hartzeko, funtzionaltasun baliokidea duen beste ekipamendu batek ordeztu beharko du. Ez da ezein kasutan ere onartuko ekipamendu baten ordeztutako ekipamenduarekin bat ez datorren funtzionaltasuna duen beste bat jartzea eta bestelako eraikin edo establezimenduan instalatzea. Adibide gisa, ez da baimenduko labe bat hozkailu batekin ordezte.



Ordezgutako egungo ekipamendua ezin izango da berrerabili eta hondakin gisa kudeatu beharko da, GEEH «gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei» buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa betez.

Horrekin batera, ekin beharreko jarduketek obrak eskatzen dituztenean, azken pertsona hartzaileek honako hau bermatuko dute, obra horien ezaugarrien arabera:

- a) Eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (2000/532/EC Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 5 4 kategorian aipatutako material naturala alde batera utzita) berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeke prestatuko da, betetze-eragiketak barne, hondakinak beste material batzuen ordeztu erabiltzeko moduan, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeko 8. artikuluan ezarritako hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik.

Operatzaileek hondakinen sorkuntza mugatu beharko dute eraikuntza eta eraispénarekin zerikusia duten prozesuetan, EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliz eta gaikako eraispén baliatuz substantzia arriskutsuen deuseztapen eta manipulazio segurua ahalbidetzeko, eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko materialak gaika deuseztatuz, eraikuntza- eta eraispén-hondakinatarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz.

Era berean, eraispén EAEn hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duten otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazitakoaren arabera egingo dela ezarriko da. Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babesteko dute, eta, bereziki frogatuko dute, ISO 20887 arauaren edo eraikinen egokigarritasun- edo desmuntatze-gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuen harira, baliabideen erabileran efizienteagoak izateko diseinaturik daudela, berrerabilera eta birziklatzea ahalbidetzeko desmuntagarriak, malguak eta moldaerazak direla.

- b) Energia-birgaitzearen alorrean, neurri honetan aurreikusitako jarduketek garapenean erabiltzeko eraikuntza-osagai eta -materialek ez dute amiantorik edo oso substantzia kezkagarriarik barne hartuko, 2006ko abenduaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 Erregelamenduaren (EB) XIV. eranskinean jasotako baimendu beharreko substantzien zerrendaren arabera. Substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzko Erregelamendu horrek (REACH) Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortzen du, 1999/45/EB Zuzentaraua aldatzen du eta Kontseiluaren 793/93 Erregelamendua (EEE) eta Batzordearen 1488/94 Erregelamendua (EB) indargabetzen ditu, baita Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua eta Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EB eta 2000/21/EB Zuzentarauak ere.

A.1.iv) Jarduketa ez subentzionaagarriak

Ezin izango dira jarduketa subentzionaagarritzat hartu:

- a) Jatorri fosileko erregaia erabiltzen duen edozein ekipamendu.
- b) Alokatzeko, lagatzeko edo saltzeko helburuarekin eskuratzen den ekipamendua.
- c) Egungo ekipamendua ordeztu ez duten jarduketak.
- d) Sukaldeko edo norberaren zainketako etxetresna elektriko txikiak, hala nola, adibidez, lehorgailuak, ile-plantzak, zukugailu txikiak, eskuzko irabiagailuak, hortzetako eskuila elektrikoak, besteak beste.
- e) Klimatizazioarekin lotutako edozein ekipamendu (haizagailuak, Split, bero-ponpetan oinarritutako klimatizagailuak...).



A.2. 2. motako jarduketa subentzionagarriak: Argiztapen-instalazioen energia-efizientzia hobetzeko jarduketak

A.2.i) Jarduketa subentzionagarriak

Jarduketa subentzionagarritzat hartuko dira funtzionamenduan dauden egungo instalazioetako energia-efizientzia hobetzea ahalbidetzen duten guztiak, ekipoak ordeztarene bidez edo egungo ekipoen efizientzia hobetzen duten elementuak sartzearen bidez. Jarduketa horien artean bilduta daude izaera orientatiboarekin eta ez-mugatzaillearekin ondoren zerrendatzen direnak:

- a) Luminariak, lanparak eta ekipoa: multzoaren ordeztarrendimendu handiagoko luminariak, efizientzia handiagoko lanparak eta erreaktantzia elektroniko erregulagarriak eta argiztapenean instalatutako potentzia murriztea ahalbidetzen dutenak jartzea, araututako kalitateko eta konfort bisualeko eskakizunak beteta. Argi-puntuak birkokatzea, urteko kontsumo elektrikoa egungo argiztapen-sistematik murrizteko moduan.
- b) Bertako kontrola, urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetzen duten sistema eta elementuak, argiztapen-maila pizteko eta erregulatzeko bitartekoen bidez, eta domotika: presentziaren arabera, eraikineko guneen arabera, edo argi naturalaren ekarpenak ezarritako argiztapen-mailaren erregulazioaren arabera kontrol-sistemak edukiko dituzte.

Urrutiko kontrola edo kontrol automatikoa ahalbidetuko duten sistemak eta elementuak, kontrolatzera bideratutako instalazioen bitarteko digitalen bidez:

- Argiztapen-sistema eraginkorrak, argiztapena une bakoitzeko premietara egokituta.
- Eraikineko toldoen, pertsianen edo gortinen kontrol automatikoko sistemak, eguzki-argiaren aprobetxamendu optimoa ahalbidetuko dutenak.
- Eraikinen argiztapena pizteko eta itzaltzeko kontrol automatikoko sistemak.

AENOR EA0026:2006 Etxebizitzetako sistema domotikoen instalazioak ziurtagiria daukaten jarduketak hartuko dira halakotzat, bereziki.

- c) Monitorizazio-sistemak ezartzea, edozein unetan konfort-baldintzak zein diren jakitea ahalbidetuko digutenak, baita energia kudeatzeko sistemak ezartzea ere.

Birgaitzen den argiztapen-instalazioak bete behar dituen energia-efizientziako gutxieneko eskakizunak Eraikintzaren Korde Teknikoak HE-3-Argiztapen instalazioen energia-efizientzia dokumentuan jasotakoak dira.

Ekipamenduok bete beharreko derrigorrezko baldintza izango da honako hauek edukitzea:

- CE marka.
- Ekipamenduaren fitxa teknikoak.

A.2.ii) Energia-aurrezpenen justifikazioa

Jarduketa subentzionagarriek energia-aurrezpena lortu eta justifikatu beharko dute. Aurrezpen-justifikazioa hobetutako edo ordeztutako argiztapen-sistema osorako egin beharko da, «argiztapen-aurrezpenaren justifikazio-fitxa» osatuz EEEn webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.

A.2.iii) Hondakinen kudeaketa

Ordeztutako egungo ekipamendua ezin izango da berrerabili eta hondakin gisa kudeatu beharko da, GEEH «gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei» buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa betez.

Horrekin batera, ekin beharreko jarduketek obrak eskatzen dituztenean, azken pertsona hartzaileek honako hau bermatuko dute, obra horien ezaugarrien arabera:

- a) Eraikuntzaren lekuan sortutako eraikuntza- eta eraipen-hondakin ez-arriskutsuen gutxienez % 70 (pisuan) (2000/532/EC Erabakiak ezarritako hondakinen Europako zerrendan 17 5 4 kategorian aipatutako material naturala alde batera utzita)



berrerabiltzeko, birziklatzeko eta balorizatzeko prestatuko da, betetze-eragiketak barne, hondakinak beste material batzuen ordeztu erabiltzeko moduan, ekonomia zirkular baterako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeko 8. artikuluan ezarritako hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik.

Operatzaileek hondakinen sorkuntza mugatu beharko dute eraikuntza eta eraispénarekin zerikusia duten prozesuetan, EBko eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorritik, eskuragarri dauden teknikarik onenak erabiliz eta gaikako eraispén baliatuz substantzia arriskutsuen deuseztapen eta manipulazio segurua ahalbidetzeko, eta kalitate handiko berrerabilera eta birziklatzea errazteko materialak gaika deuseztatuz, eraikuntza- eta eraispén-hondakinatarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz.

Era berean, eraispén EAEn hondakinak kudeatzeko, eraikuntzako eta eraispéneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duten otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretuan eta ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazitakoaren arabera egingo dela ezarriko da. Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna babestuko dute, eta, bereziki frogatuko dute, ISO 20887 arauaren edo eraikinen egokigarritasun- edo desmuntatze-gaitasuna ebaluatzeko beste arau batzuen harira, baliabideen erabileran efizienteagoak izateko diseinatuta daudela, berrerabilera eta birziklatzea ahalbidetzeko desmuntagarriak, malguak eta moldaerazak direla.

- b) Energia-birgaitzearen alorrean, neurri honetan aurreikusitako jarduketaren garapenean erabilitako eraikuntza-osagai eta -materialek ez dute amiantorik edo oso substantzia kezagarriarik barne hartuko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 18ko 1907/2006 Erregelamenduaren (EB) XIV. eranskinean jasotako baimendu beharreko substantzien zerrendaren arabera. Substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzko Erregelamendu horrek (REACH) Substantzia eta Prestakin Kimikoen Europako Agentzia sortzen du, 1999/45/EB Zuzentaraua aldatzen du eta Kontseiluaren 793/93 Erregelamendua (EEE) eta Batzordearen 1488/94 Erregelamendua (EB) indargabetzen ditu, baita Kontseiluaren 76/769/EEE Zuzentaraua eta Batzordearen 91/155/EEE, 93/67/EEE, 93/105/EB eta 2000/21/EB Zuzentarauak ere.

A.2.iv) Jarduketa ez-subentzionagarriak:

Ezin izango dira jarduketa subentzionagarritzat hartu:

- Jatorri fosileko erregaia erabiltzen duen edozein ekipamendu.
- Alokatzeko, lagatzeko edo saltzeko helburuarekin eskuratzen den ekipamendua.
- Gaur egun funtzionamenduan ez dagoen ekipamendu bat ordeztuz gertatzen direnak.

B. KOSTU HAUTAGARRIAK ETA EZ-HAUTAGARRIAK

B.1. Kostu hautagarriak

Laguntza-programa honen edozein jarduketa tipologiari (1. motako eta 2. motako jarduketak) dagokionez, honako hauek hartuko dira kostu hautagarritzat:

- Ekipamendu berrien erosketak-gastuak.
- Ekipamendu zaharra garraiatzeko eta kentzeko gastuak.
- BKE baimendutako kontrol erakunde batek egindako aurrezpena egiaztatzen duen txostenaren gastuak.
- Ekipamendu berriaren instalazioan soil-soilik beharrezkoak diren gastuak, kostu ez-hautagarrien zerrendan adierazitakoak kenduta.



B.2. Kostu ez-hautagarriak

Honako kontzeptu hauek ez dira hautagarritzat hartzen:

- a. Administrazio-baimenak, lizentziak, baimenak, abalen eta/edo fidantzen, isunen, tasen, zergen edo tributuen kostua. Dena den, tributuoak kostu subentzionagarritzat hartzeari dagokionez, 20/2023 Legearen 30.8 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.
- b. Laguntzako jarduketekin lotutako proiektu teknikoaren edota memorien idazkuntzaren kostuak.
- c. Jarduketan zuzendaritza fakultatiboaren kostuak.
- d. Establezimenduan edo eraikinean egin daitezkeen lan edo eraikuntza-obra guztien kostuak, ekipamendu subentzionagarrien instalazioari dagozkionak gainditzen dituztenak. Hau da, ez dira igeltserotza-lanak barnean hartuko, hala nola eraispinak, altxatzeak, alikatatuak, akaberak, harguneen desplazamendua, edo helburutzat araudia egungo instalazioetara egokitzea dutenak (iturgintza, berokuntza...), besteak beste.
- e. Erabilitako edo bigarren eskuko etxetresna elektrikoak erosteko egindako inbertsioak.
- f. Ekipamendua konpondu, egokitu eta mantentzeko egindako inbertsioak.
- g. Laguntzaren kudeaketa-gastuak.
- h. Dirulaguntzaren erakunde eskatzaileak berak egindako lanak, ezta erakunde hornitzailea edo jardueraren emalea eskatzailea bera deneko jarduketak ere, edo antzeko kasu bat gertatu eta egoera horretatik auto fakturazioa eratorri badaiteke.
- i. Gestio, kontratazio, kontsulta edo izapide administratiboekin lotutako gainerako gastu guztiak, nahiz eta baimenak edo lizentziak lortzeko beharrezkoak izan.
- j. Finantza-gastuak, pasibo-berregituraketak edo birfinantzaketak, zirkulatzaila-premia eta beste zerga edo tasa batzuk. Era berean, ez dira hautagarriak izango edozein eragiketa motaren banku-kostuak.
- k. Jendeari ondoren saldu ahalko zaizkion higiezinak, eta erakusketako eta probako artikulak, eta aldi baterako erakustokien instalazioak.
- l. Harpidetutako aseguruak eta zehapen penalei lotutako kostuak, baita prozedura judizialen gastuak ere.
- m. Jarduketan edozein eragiketa- eta mantentze-gastu, edo administrazioaren berezko gastuak.
- n. Establezimenduen errentamendu-gastuak edo pertsona onuradunaren jardueraren gastu korronteak.
- o. Autonomia-erkidego edo hiri autonomo egikaritzailen mendeko lan-harremana duten langile finkoen edo aldi baterako langileen ordainsari arruntei dagozkien gastuak.
- p. Azken erakunde onuradunaren funtzionamendurako gastu korronteak, honako hauek barne: errentamenduak, materialek edo hornidurak eskuratzea, edo gastu korronteak oro har.
- q. Klima- eta ingurumen-arloan Europar Batasunaren eta Estatuaren arauak eta lehentasunak erabat errespetatzen ez dituzten proiektuak eta «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa inbertsio jasagarriak errazten dituen eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzen duen 2020ko ekainaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/852 (EB) Erregelamenduen 17. artikuluen zentzuan. Edozein kasutan ere, ez dira finantzarriak izango inbertsio honetarako Kontseiluaren Betearazpen Erabakian ezarritako eskusio-zerrendan bildutako jarduerak:
 - i. Erregai fosilekin lotutako jarduerak, erregai horien ondorengo erabilera barne. Salbuetsita daude elektrizitatea edota beroa gas naturala erabiliz sortzearekin lotutako neurri honen esparruaren barruan dauden proiektuak, baita garraioko eta banaketa konexuko azpiegiturarekin lotutakoak ere, betiere «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak beteta (2021eko otsailaren 18ko C 58 AO, 1. or.).



- ii. EBko EEMA emisio-eskubideko merkataritza-araubidearen esparruko jardueren artean eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen emisioak eragingo dituztela aurreikusten direnak ez dira inoiz ere dagozkion erreferentziako parametroen azpitik egongo. Subentzionatutako jarduerak eragindako negutegi-efektutako gasen emisioak ez direla dagozkion erreferentziako parametroak baino nabarmen txikiagoak izango aurreikusten denean, horri buruzko azalpen arrazoitu bat eman beharko da. Emisio-eskubideen merkataritza-araubidearen aplikazio-esparruan sartzen diren jardueretako emisioen-eskubideak doan esleitzeko ezarritakoak dira erreferentziako parametroak, Batzordearen 2021/447 (EB) Betearazpen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.
- iii. Hondakinen zabortegiekin lotutako jarduerak.
- iv. Erraustegiekin lotutako jarduerak. Esklusio hau ez zaie aplikatzen soilik-soilik hondakin arriskutsu ez-birziklagarrietan aritzen diren instalazioetan hasitako ekintzei, ezta egungo instalazioei ere, ekintza horien helburua energia-efizientzia handitzea, ihes-gasak gas horiek biltegitratzeko edo erabiltzeko atzitzea edo errausketako errautsetatik materialak berreskuratzea bada, betiere ekintza horiek instalazioetako hondakinak tratatzeko kapazitatea handitzea edo haien bizitza erabilgarria luzatzea badakarte; instalazio bakoitzeko justifikatu beharko dira gorabehera horiek dokumentu bidez.
- v. Tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak. Esklusio hau ez da aplikatzen egungo tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioei dagokienez hasitako ekintzei, ekintza horien xedea instalazioen energia-efizientzia handitzea edo bereizitako hondakinak birziklatzeko eragiketetarako berregokitzea denean, hala nola konpostajearen eta biohondakinen digestio anaerobiaren kasuan, betiere ekintza horiek instalazioetako hondakinak tratatzeko kapazitatea handitzea edo haien bizitza erabilgarria luzatzea badakarte; instalazio bakoitzeko justifikatu beharko dira gorabehera horiek dokumentu bidez.
- vi. Hondakinak epe luzera desagerrarazteak ingurumenean kalteak eragin ditzakeen kasuetako jarduerak.

C. LAGUNTZAREN INTENTSITATEA

Kostu subentzionagarriaren % 90 izango da laguntzaren ehuneko totala.

Kontuan hartuko dira 5. oinarrian zehaztutako minimis laguntzei Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen 107. eta 108. artikulua aplikatzeari buruzko 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamendutik eratorritako mugaketak.



II. ERANSKINA

DOKUMENTAZIOA

A) Laguntza-eskaera egiteko eskatutako dokumentazioa.

- a) Laguntzaren eskatzailearen, eta, bidezko bada, eskatzailea legez ordezkatzeko duen pertsonaren NANaren/AIzren kopia, eskaera pertsona fisiko edo erakunde juridiko bat ordezkatzuz edo talde, elkarte edo erkidego bat ordezkatzuz aurkezten den adierazita.

- NANaren/AIzren kopia aurkeztea ez da beharrezkoa izango baldin eta laguntzaren pertsona eskatzaileak espresuki uko egiten ez badio EEEK haren nortasun pertsonaleko datuak kontsultatzeko baimenari. Zentzu horretan, eskatzailearen IFZren/AIzren kasurako, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapenak Administrazio publikoei eskumena ematen die beren esku dauden datu pertsonalak egiaztatzeko, datu horien zehaztasuna egiaztatzearen.
- Legezko pertsona ordezkariaren IFZren/AIzren kasurako, dokumentuaren kopia aurkeztu beharko da betiere.

Eskatzailea pertsona juridiko bat bada, pertsona juridiko horren IFZ jasota dagoen identifikazio fiskaleko txartela.

- b) Eskaera lege-ordezkaritza baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du legez ezarritako baldintzetan eta ahalordetzeko eskritura edo dokumentua aurkeztu beharko du. Eskaera sinatzen duenaren (lege-ordezkaritza) NANaren/AIzren kopia ere aurkeztuko da.
- c) Eskaera pertsona ordezkari baten bidez aurkezten bada, laguntza-eskaeraren sinatzaileak behar bezala egiaztatuta egon beharko du eta ordezkariak emateko dokumentua (www.eve.eus webgunean eskuragarri dagoena) aurkeztu beharko du, non laguntza-eskaera sinatzeko eta kudeatzeko baimena emango baitaio. Eskaera sinatzen duenaren (pertsona delegatua) NANaren/AIzren kopia ere aurkeztuko da.
- d) Pertsona eskatzailearen jarduera ekonomikoari dagokion EJSN kodea jasota dagoen dokumentu ofiziala. EJSN kodea hainbat dokumentutan jasota egon daiteke, hala nola pertsona onuradunaren identifikazio fiskaleko txartelean, zentsu-aitorpenean, jarduera ekonomikoaren gaineko zergan, eratzeko eskrituran, eta abar. Edozein modutan, laguntzaren azken pertsona hartzaileak egiaztatu egin beharko du kode hori benetan espresuki jasota dagoela aurkeztu beharreko dagokion dokumentu ofizialean.

Horrekin batera, bere jarduera «EJSN 5590: Beste ostatu batzuk» jarduerapean garatzen duen eta ETEJE Euskadiko Turismo Enpresen eta Jardueren Erregistroan nahitaez inskribatu behar den pertsona eskatzaileak «Euskadiko Turismo Erregistroan inskribatzeko kodea» jasota dagoen dokumentu ofiziala aurkeztu beharko du.

- e) Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkaritza sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, formulario telematikoa dagoena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:
- Dirulaguntzei buruzko Legeko 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeretako baten eraginpean ez dagoela, eta bidezko bada, ezta DBLen 13.bis artikuluan aurreikusitakoetan ere.
 - Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
 - Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, hala badagokio, beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.



Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.

Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan 1. atalean aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzei buruzko Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzei buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

- Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboan kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32. ean xedatutakoari dagokionez.

- Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfinantzatu eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduketa ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen du (hau da, ez duela gaudituko diruz lagundutako jarduketaren kostua).
- Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki bidez zigortuta ez dagoela, ez eta aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende ez dagoela, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleitura dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituelako.
- Pertsona onuradunak jarduera ekonomiko bat egiten badu, jarduera horren helburua edo jarduera guztia edo zati bat armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea ez izatea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea).
- Ez dihardu 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren 1. artikuluan adierazitako sektoreetako batean edo batean baino gehiagotan.
Era berean, «enpresa bakar» gisa (2023/2831 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluan definizioaren arabera) emandako minimis laguntzen zenbateko totalaren berri emango du.
- Ez dagoela ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreala eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean.



- Informatuta dagoela eta 11. oinarrian eta 14.4 oinarrian oro har ezarrita datozkion betebeharrak osorik bete behar dituela onartzen duela, hau da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluari eta HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluari buruzkoak.
- GEEH «gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei» buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan ezarritakoa betez eta ekonomia zirkular batera hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean ezarritakoaren arabera egingo dira laguntzako jarduketak, EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloarekin, eta eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren arabera.
- Energia-birgaitzearen arloan, neurri horretan aurreikusitako jarduketek ez dute substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzko 2006ko abenduaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 zenbakiko (EE) Erregelamenduaren (REACH) XIV. eranskinean identifikatutako substantziarik bilduko.
- Laguntza jaso dezaketen jarduketek aplikatzekoa zaien indarreko araudia beteko dute, eta beharrezko lizentziak eta administrazio-baimenak eduki jarduketa horiek hori eskatzen badute.

Bereziki, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- Eraikinen birgaikuntzan energia-efizientziari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako gidalerroak hartuko dira kontuan ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izan daitezen, horrela energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa nabarmen murriztea ahalbidetuz.
 - Birgaikuntza-neurriek eraikinak klima-aldaketara egokitzen lagunduko dute, posible diren neurriak hartuz egungo eraikinak ahalbidetzen dituen aukeren esparruan eta eraikina bera babestea eraikin babestuak diren kasuetan, hala nola landare-estalkiak, toloak, itzalguneak, eta abar, erabiltzea.
 - Obraren inpaktua saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin lotutako ingurumen-narriadurako arriskuak aztertuko dira, ura erabiltzeko eta babesteko kudeaketa-planaren arabera.
 - Erabiltzaileekin kontaktua izan dezaketen eraikuntzan erabilitako eraikuntzarako osagai eta materialek material edo osagaiaren m³-ko 0,06 mg formaldehido baino gutxiago emitituko dute eta material edo osagaiaren m³-ko 1A eta 1B kategorietako osagai organiko lurrunkorren 0,001 mg baino gutxiago, aldeztutako proba-akordioarekin CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 arauarekin edo beste proba-baldintza estandarizatuekin edo zehaztapen-metodo konparagarrieekin. Eraikuntza berria potentzialki kutsatutako toki batean badago (brownfield tokia), kutsatzaile potentzialen ikerketa bat egingo da lekuan, ISO 18400 araua erabiliz. Gainera, neurriak hartuko dira zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko obraren fasean eta neurri hori lotutako jarduketak egikaritutako dira betiere indarreko aplikazio-araudia betez zoru eta uren kutsadura posibleari dagokionez.
- Laguntzaren azken pertsona hartzailea titularra den kontuaren IBAN kodea egiaztatzeko banku-ziurtagiria. Kontu-zenbaki horretan ordainduko da azkenean ebatzitako dirulaguntza, laguntza-programa honek eskatutako prozesuko betekizun guztiak betetakoan eta eskatzailea pertsona onuradun bihurtutakoan.
 - Enpresaburu, Profesional eta Atxikitzaileen Erroldan inskribatuta egotearen ziurtagiria edo Foru Zerga Administrazioak –edo, kasuan-kasuan, Zerga Administrazioaren Foru edo Estatu Agentziak– emandako Errolda Egoerako Ziurtagiria, non laguntzaren eskaera-datan benetan garatutako jarduera ekonomikoa islatu behar den. Horri dagokionez, kontuan hartzen da azken pertsona hartzaileak, bere laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, baimena emango dio organo emaileari informazio hori zuzenean kontsultatzeko, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatu Zerga Agentziari dagozkionak salbu, eta laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko ditu ziurtagiri horiek. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal



izango du azken pertsona hartzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

h) Egoitza fiskala Espainian duela egiaztatzen duen zerga-ziurtagiria.

Horri dagokionez, kontuan hartzen da azken pertsona hartzaileak, bere laguntza-eskaera aurkeztearekin batera, baimena emango diola organo emaileari, informazio hori zuzenean kontsultatu dezan, egoitza fiskala EAEn badago. Dena den, baimen inplizitu hori espresuki ukatu ahal izango du azken pertsona hartzaileak, eta kasu horretan dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du, eta hori guztia 39/2015 Legearen 28. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoari jarraikiz.

Egoitza fiskala EAEtik kanpo badago, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du azken hartzaileak.

i) Indarreko araudiaren arabera berdintasun-plan bat edukitzera behartuta dauden enpresentzat, plan horren kopia edo, hala dagokionean, EAEko Berdintasun Planen Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (edo baliokidean) erregistratu eta bertan utzi dela ziurtatzen duen ziurtagiria. 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan, emakumeen eta gizonen berdintasun-alorreko Estatuko Legerian ezarritakoaren arabera sexu-jazarpena edo sexu-arrazoiengatik jazarpena prebenitzeko eta hari aurre egiteko neurrien ezarpena egiaztatzen duen dokumentua.

j) SEM Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa betetzen dela egiaztatzen duten erantzukizunpeko adierazpena, EEERen webgunean eskuragarri dauden ereduaren arabera, behar bezala beteta eta sinatuta:

- Datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko adierazpena, SEEP Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruko jarduketak egiteari dagokionez 2021/241 Erregelamenduaren (EB) 22. artikulua arabera.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (NextGenerationEU) ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia planean aurreikusitakoaren arabera 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikulua 6) apartatuan ezarritako zentzuan «kalte esanguratsurik ez eragitearen» printzipiora (DNSH «do not significant harm» printzipioa) egokitzeko erantzukizunpeko adierazpena.
- Iruzuraren aurkako politika ezagutzen duela eta atxikitzen zaiola egiaztatzen duen adierazpena.
- Titulartasun errealeko erantzukizunpeko adierazpena, 2015eko maiatzaren 20ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuari jarraikiz.
- Finantzaketa bikoitzean erortzen ez dela azaltzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- IGEA Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena HFP/1030/2021 Aginduko ereduaren arabera.
- IGEA Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena, HFP/55/2021 Aginduko ereduaren arabera, eta nahitaez egon beharko du elektronikoki sinatua aginduan bertan xedatutako betebeharrak betetzeko.

Era berean, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikulua aipatzen duen egiaztapenaren arabera ez badago eskatzaileraren baten egiazko titulartasuneko daturik, 5 egun balioduneko epean Administrazioak eskatzen dizkien datuak aurkeztu beharko dizute eskatzaile horiek. Informazio hori ezarritako epearen barruan ez ematea laguntza eskaera ukatzeko arrazoi erabatekoa izango da.

k) 2.1 oinarriko a) apartatuko laguntza eskatzen duten pertsonen kasurako: Eraikinen, eraikinen zati baten edo lokalaren jabetza betiere jarduketa eskatzen duen jabearena dela egiaztatzen duen dokumentuaren kopia.



- l) Horretarako, honako hauek aurkeztu ahalko dira: Eraikinaren titulartasuna egiaztatzen duen katastro-ziurtagiria, jabetza-erregistroaren ziurtagiria edo ohar sinplea, edo higiezinaren erosketa frogatzen duen gertakariaren, egintzaren edo negozio juridikoaren akreditazio-dokumentua(k). Izaera publikoko (eskritura publikoa) edo pribatukoa izan daiteke dokumentu hori, betiere frogatzeko moduan jasota badago dokumentuaren dataren errealitatea, Kode Zibilarren 1227. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, baita esku-hartzaileen eta, kasuan-kasuan, Kode Zibilarren 1261. artikulua aipatzen dituen eskakizun guztien errealitatea ere. Jarduketaren pertsona eskatzailea jabea den pertsona ez bada, laguntzaren xede den jarduketari dagozkion obrak egikaritzeko esanbidezko ahalmena egiaztatzen duen dokumentazioa edo kontratua ere aurkeztu beharko da (errentamendu-kontratua, ustiapen-kontratua, etab.).
- m) 2.1 oinarriko b) apartatuko laguntza eskatzen duten pertsonen kasurako: Laguntzaren pertsona eskatzaileari zaharberritze-lanei ekiteko eta laguntza-programa honetako ekipamenduan edota argiztapen-sisteman esku hartzeko gaitasun espresua duela egiaztatzen dion kontratuaren kopia edo indarreko tresna juridikoa.
- n) Pertsona eskatzaileak sinatutako eskaeraren memoria, edo kasuan-kasuan haren ordezkariak sinatutakoa, non, besteak beste, establezimenduaren datuak, EJSN, laguntza eskatzeko jarduketaren tipologia, jarduketaren deskribapena, inbertsio totala eta kostu hautagarriak adieraziko diren, EEE webgunean eskueran jarriko den ereduaren arabera.
- o) Egin beharreko jarduketa tipologiaren arabera aurreikusitako energia-aurrezpenaren justifikazio-fitxa (1. mota Ekipamendua edo 2. mota Argiztapena), EEE webgunean eskuragarri dagoen Excel formatuko ereduaren arabera. EEEren webgunean barne hartutako Excel formatuan bete beharko da fitxa.
- p) Argiztapen-instalazioaren edo ordeztu beharreko etxetresna elektrikoaren ekipamendu zaharren argazki-erreportajea. Irakurtzeko modukoak izateko bereizmen nahikoa izan beharko dute argazkiek.

Ekipamendua eta etxetresna elektrikoak ordezteko 1. motako jardueretarako, modelo bereko ekipamendu bat baino gehiago ordezteko alde batera utzita, haietako bakoitzaren argazkiak aurkeztea eskatuko da. Ahal den neurrian, ekipamenduaren argazki orokor bat, eta ezaugarri plakaren eta energia-etiketaren beste bat.

Argazkiak formatu digital konprimatuan erantsiko dira, ahal dela.

- q) 1. motako jarduketetarako (ekipamendua), erositako ekipamendu berrien fitxa teknikoak aurkeztu beharko ditu, eta egungo ekipamenduen fitxa teknikoak, halakorik izanez gero.
- r) Jarduketak egikaritzeko dituen edo dituzten enpresaren edo enpresen aurrekontua, behar bezainbeste banakatua, 2025eko urtarrilaren 1eko datakoa edo ondorengoa. 5.4 oinarriaren arabera eta gastu subentzionagarriaren kopuruaren arabera, gutxienez hiru (3) eskaintza behar dira, onartutako proposamena haien artean.
- s) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzen kasuan, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legeari (hemendik aurrera, «3/2004 Legea») lotutako irabazi-asmoa duten zuzenbide publikoko erakundeez besteko pertsona juridikoak badira eskatzaileak, aipatutako Legean onuradun izaera lortzeko finkatutako ordainketa-epeak bete beharko dituzte. Ezarritako betetze-maila honako frogabide hauen bidez egiaztatuko da:

i.- Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen pertsona juridikoek:

- Entitateak galdu-irabazien kontu laburtuak aurkezteko kontabilitate-araudian ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - Eskuragarri dagoen azken urterokoaren onartutako balantzea.
 - Azken urteko galdu-irabazien kontu laburtua, dagokion erregistroan inskribatua, edo, errekerimendu-epea bukatutakoan inskribatuta ez badaude, onartuta daudenak.



- Altan dauden langileen batez besteko plantillari buruzko txostena, Gizarte Segurantzak egina, erakundearen kotizazio-kodeei buruzkoa, aurrez adierazitako dokumentazioari dagokion urtekoari dagokiona.
- Administrazio-organoak edo ordezkaritza-ahalmen nahikoa duen organo baliokideak sinatutako ziurtagiria, 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeak betetzen direla adierazten duena. Egoera hori egiaztatu ahal izango dute, halaber, galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoei buruzko atalean aurreikusitako frogabideen bidez (DLOaren 13.3.bis artikulua b) letra).

ii.- Kontabilitate-araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten pertsona juridikoei:

ii.a) ROACen inskribatutako auditoreak emandako ziurtagiria, ikuskatutako urteko azken kontuen memorian deskribatzen den ordainketen arloko informazioaren transkripzio xehatua jasotzen duena, kontu horietatik ondorioztatzen bada 3/2004 Legean ezarritako ordainketa-epeak betetzen direla, 3/2024 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian eskatutako informazioan oinarrituta. Ziurtagiri horrek hurrengo ekitaldiko urteko kontuak ikuskatu arte balioko du.

ii.b) Aurreko zenbakian aipatzen den «Hitzartutako Prozeduren Txostena» ezin bada jaulki, ROACen inskribatutako auditore batek egina, erreferentziako data batean sozietatearen hornitzaileei ordaintzeke dauden fakturen lagin adierazgarri bat berrikustean oinarrituta, irailaren 28ko 3/2004 Legearen ordainketa-epeak betetzeko salbuespenik detektatu gabe amaitzen bada, edo, horrelakorik detektatuz gero, bete beharreko betetze-maila lortzea eragozten ez badute, enpresa sortu eta hazteari buruzko 18/2022 Legearen (hemendik aurrera, «18/2022 Legea») azken xedapenetako seigarrenaren d) letran, bigarren apartatuan, xedatutako ehunekoan.

DLOaren ondorioetarako, atal honetan eskatutako baldintza betetzat joko da 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epeen betetze-maila 18/2022 Legearen azken xedapenetako seigarrenaren d) apartatuaren bigarren paragrafoan aurreikusitako ehunekoaren berdina edo handiagoa denean.

B) Egindako jarduketak justifikatzeko eskatutako dokumentazioa.

Laguntzen azken pertsona hartzaileek EEEren aurrean justifikatu beharko dute laguntzaren xede izan diren jarduketak egikaritu dituztela, jarraian zerrendatzen diren dokumentuak aurkeztuz:

a) Pertsona eskatzaileak edo haren lege-ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, formulario telematikoa dagoena, non honako hauek zehatz-mehatz jasota agertuko diren pertsona eskatzaileari dagokionez:

- Dirulaguntzei buruzko Legearen 13.2 eta 13.3 artikuluetan aurreikusitako egoeretako baten eraginpean ez dagoela, eta bidezko bada, ezta DBLen 13.bis artikuluan aurreikusitakoetan ere.
- Ez dagoela 20/2023 Legearen 13. artikuluan aurreikusitako zirkunstantzietakoren batean.
- Beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko betebeharrak ez daukala, edo, hala badagokio, beste dirulaguntza edo laguntzak itzultzeko dituen betebeharrak zintzo bete dituela adierazita, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko aginduaren 4. eta 7. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Era berean, aplikagarria den legeriari jarraituz dirulaguntzak lortzeko aukera galtzea eragiten duen ebazpen bidez zigortua ez dela izan.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du pertsona eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, dirulaguntza eta laguntza publikoak lortzeko inhabilitazioarekin lotutako informazioa, DLOaren 13.2 artikuluan eta 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan xedatutakoari dagokionez.



Hala eta guztiz ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahal izango dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena ekarri beharko duelarik, atal honetan adierazitako terminoetan.

- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez eguneratuta dagoela, DEOaren 22. artikuluan ezartzen denez.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileari baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan DEOaren 18. eta 19. artikuluetan aurreikusitako zirkunstantzien egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bitartez, hori guztia Nafarroako Foru Ogasunari eta Estatuko Zerga Agentziari dagozkionak salbu, laguntzaren eskatzaileak ekarri beharko dituen ziurtagiriak.

Nolanahi ere, eskatzaileak espresuki ukatu ahalko dio organo emaileari baimen hori emateko aukera, eta kasu horretan 1. atalean aurreikusitako erantzukizunpeko adierazpena aurkezteaz gain, ziurtagiria aurkeztu beharko du bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela eta egoitza fiskala egiaztatzeko.

Zerga-betebeharrak egunean dituela eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ogasuneko sailburuaren aginduan ezarritakoari jarraituko zaio, baita dirulaguntzak itzultzeari buruzkoetan ezarritakoari ere, Euskadiko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan.

- Ez duela jarduketa edo xede bererako beste laguntzarik jaso. Eskatu baditu, eskatutako edo lortutako laguntzaren zenbatekoa adierazi beharko du, baita laguntza eman duen administrazio, erakunde edo entitate publikoa ere. Beste laguntzarik jaso badu, eskaera-datan beste erakunde batzuek beste laguntza batzuk emateko emandako ebazpen positiboan kopia aurkeztu beharko da.

Laguntza-eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak baimena ematea organo emaileak zuzenean lortu dezan, ziurtagiri telematikoen bidez, edozein laguntza, dirulaguntza edo funtsak lortu izanari buruzko informazioa, 20/2023 Legearen 16. artikuluan eta DLOaren 32.lean xedatutakoari dagokionez.

- Beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera, publikoak edo pribatuak izan, ez dagoela gainfinantzatu eta laguntza-eskaeraren helburua edo jarduketa ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen du (hau da, ez duela gaindituko diruz lagundutako jarduketaren kostua).
- Jarduera ekonomiko bat egiten badu, EBk hartutako erabaki bidez zigortuta ez dagoela, ez eta aurretik eman zaien edozein laguntzaren edo dirulaguntzaren gain berreskuratze-agindu baten mende ez dagoela, legez kontrakoa eta barne-merkatuarekin bateraezina den laguntza gisa deklaratu delako, edo emakidan esleitura dituzten betebeharrak edozein modutan bete ez dituelako.
- Pertsona onuradunak jarduera ekonomiko bat egiten badu, jarduera horren helburua edo jarduera guztia edo zati bat armak ekoiztea, merkaturatzea eta finantzatzea ez izatea (EAEko Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunaren abenduaren 28ko 14/2007 Legea).

- Ez dihardu 2023/2831 (EB) Erregelamenduaren 1. artikuluan adierazitako sektoreetako batean edo batean baino gehiagotan.

Era berean, «enpresa bakar» gisa (2023/2831 (EB) Erregelamenduko 22. artikuluen definizioaren arabera) emandako minimis laguntzen zenbateko totalaren berri emango du.

- Ez dagoela ekonomia zirkular baterako kutsatutako hondakinei eta lurzoruei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 109.4 artikuluan, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legearen 116. artikuluan, eta transexualen berdintasun erreal eta eraginkorreko eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan bildutako zirkunstantzia eragozleetako batean.



- Informatuta dagoela eta 11. oinarrian eta 14.4 oinarrian oro har ezarrita datozkion betebeharrak osorik bete behar dituela onartzen duela, hau da, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) artikuluari eta HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluari buruzkoak.
- Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuan (GEEH) ezarritakoa betez eta Ekonomia zirkular baterako hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean ezarritakoaren arabera egingo dira laguntzako jarduketak, EBko eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak kudeatzeko protokoloarekin, eta Eraikuntzako eta eraispenerako hondakinen sorkuntza eta kudeaketa arautzen duen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren arabera.
- Energia-birgaitzearen arloan, neurri horretan aurreikusitako jarduketek ez dute Substantzia eta prestakin kimikoen erregistroari, ebaluazioari, baimenari eta murrizketari buruzko 2006ko abenduaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 zenbakiko (EE) Erregelamenduaren (REACH) XIV. eranskinean identifikatutako substantziarik bilduko.
- Laguntza jaso dezaketen jarduketek aplikatzekoa zaien indarreko araudia beteko dute, eta beharrezko lizentziak eta administrazio-baimenak eduki jarduketa horiek hori eskatzen badute.

Bereziki, honako alderdi hauek hartuko dira aintzat:

- Eraikinen birgaikuntzan energia-efizientziari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako gidalerroak hartuko dira kontuan ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izan daitezen, horrela energia primario ez-berritzagarriaren kontsumoa nabarmen murriztea ahalbidetuz.
 - Birgaikuntza-neurriek eraikinak klima-aldaketara egokitzen lagunduko dute, posible diren neurriak hartuz egungo eraikinak ahalbidetzen dituen aukeren esparruan eta eraikina bera babestea eraikin babestuak diren kasuetan, hala nola landare-estalkiak, toloak, itzalguneak, eta abar, erabiltzea.
 - Obraren inpaktua saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin lotutako ingurumen-narriadurako arriskuak aztertuko dira, ura erabiltzeko eta babesteko kudeaketa-planaren arabera.
 - Erabiltzaileekin kontaktua izan dezaketen eraikuntzan erabilitako eraikuntzarako osagai eta materialek material edo osagaiaren m³-ko 0,06 mg formaldehido baino gutxiago emitituko dute eta material edo osagaiaren m³-ko 1A eta 1B kategorietako osagai organiko lurrunkorren 0,001 mg baino gutxiago, aldeztu aurreko proba-akordioarekin CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 arauekin edo beste proba-baldintza estandarizatuekin edo zehaztutako metodo konparagarrieekin. Eraikuntza berria potentzialki kutsatutako toki batean badago (brownfield tokia), kutsatzaile potentzialen ikerketa bat egingo da lekuan, ISO 18400 araua erabiliz. Gainera, neurriak hartuko dira zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko obraren fasean eta neurri hori lotutako jarduketak egikaritutako dira betiere indarreko aplikazio-araudia betez zoru eta uren kutsadura posibleari dagokionez.
- Honako hauek bermatzeko konpromisoa hartzen du:
 - Estatuko eta Europar Batasuneko arauak betetzea, honelako jarduketei aplikatzekoak diren aukera-berdintasuneko eta diskriminaziorik ezeko betekizunei dagokienez.
 - Estatuan eta Europar Batasunean ingurumenaren eta garapen jasagarriaren alorrean indarrean dauden arauak betetzea, eta
 - Iruzuraren aurkako neurri eraginkor eta neurrizkoak aplikatzea laguntzaren xede den proiektuaren kudeaketa-eremuan, pertsona fisikoentzat izan ezik.
 - b) EEERI zuzendutako jakinarazpena aurkeztutako dokumentazioaren berri emanez, datarekin eta laguntzen azken pertsona hartzaileak sinatuta.



c) Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen pertsona eskatzaileak edo, kasuan-kasuan, haren pertsona ordezkariak sinatutako jarduketa-memoria, laguntza emateko ebazpenak eskatzen dutenari jarraikiz, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adieraziz, EEERen webgunean eskueran jarritako ereduaren arabera.

d) Egindako jarduketei dagozkien eskaera eta/edo kontratuen zerrenda eta kopia.

e) Jarduketa subentzionagarria egin izana justifikatzen duten fakturak, onuradunaren izenean emanak 2.1 oinarrian zehazten den bezala, eta, banakatuta, partiden arabera ekonomikoki balioztatuta eta 2025eko urtarilaren 1etik aurrera datatuta.

f) Fakturak ordaindu izana justifikatzen duten agiriak, honako hauek identifikatzeko aukera ematen dutenak: laguntzaren onuraduna, ordainketa jasotzen duen hirugarrena, ordainketa-data (balio-data) eta laguntzako jarduketa identifikatzeko beharrezkoak diren datuak. Dokumentuek 2025eko urtarilaren 1etik aurrera egon beharko dute datatuta, kontura edo beste edozein kontzepturen pean ordain litezkeen kopuruak barne. Aurkeztutako dokumentuak pertsona onuradunaren funtsen zinezko irteera egiaztatu beharko du (adibidez, banku-transferentzia, ordainagiriaren kargua edo kreditu- edo zordunketa-txartela, ordainketa-egiaztagiri gisa finantza-erakunde baten bidez egindako eta kontuan kargatutako ordainketa), eta, hori horrela, ez da erantzukizunpeko adierazpenik onartuko eskudirutan egindako ordainketei edo hartu-agiriaren gain.

Azken hartzailea enpresa bat denean, ordainketek enpresari aplikagarria zaion sektore-araudian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordainduta egon beharko dute edo, bestela, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurka borrokatzeko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

g) Egindako jarduketaren argazki-erreportajea, instalatutako ekipamendu berrien argazkiak edo ekindako argiztapen-jarduketak barne, eta betiere bertan jarduketaren kartel edo plaka publizitarioa erakusgai dagoela, 11. oinarrian adierazitakoa EEERen webgunean eskueran jarritako ereduaren arabera. Irakurtzeko modukoak izateko bereizmen nahikoa izan beharko dute argazkiek.

Ekipamendua eta etxetresna elektrikoak ordeztzeko jardueretarako, modelo bereko ekipamendu berri bat baino gehiago jarri izana alde batera utzita, haietako bakoitzaren argazkiak aurkeztea eskatuko da. Ahal den neurrian, ekipamenduaren argazki orokor bat, eta ezaugarri-plakaren edota energia-etiketaren beste bat.

Argazkiak formatu digital konprimatuan erantsiko dira, ahal dela.

h) Laguntzen azken hartzailearen Interneteko gunearen informazioa eta bertan sartzeko esteka, gunerik badu, eta bertan laguntzen azken hartzaile horrek jendeari informazioa emango dio Next Generation Funtsetatik edo Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik lortutako laguntza posibleaz edota, kasuan-kasuan, Europar Batasuneko dagokion tresnatik jasotakoaz, eragiketaren deskribapen labur bat eginez, proportziozko moduan emandako laguntza-mailarekiko, laguntzaren helburu eta emaitzekin, eta Europar Batasunaren finantza-laguntza nabarmenduz betiere.

i) Jarduketaren kontratazio-prozesuari buruzko justifikazio-dokumentazioa laguntzen azken pertsona hartzailearen aldetik.

j) Zerrendatutako transakzio guztietarako (diru-sarrerak eta ordainketak, kasuan-kasuan, laguntzen diru-sarrera, hornitzaileei egindako ordainketak, eta abar, barne) bereizi edo desberdindu bat dagoela justifikatzen duen dokumentazioa.

k) Hondakinak ongi kudeatzeari buruzko I. eranskinean adierazitako betetzea justifikatzen duen dokumentazioa. Honako agiri hauek aurkeztu beharko dira, dagokionaren arabera:

A) Tresna elektriko eta elektronikoen kasuan:

- o Etxetresna elektrikoaren banatzaileak emandako egiaztagiriaren kopia non egiaztatzen den ordeztutako gailuak, GEEH «gailu elektriko eta elektronikoen hondakintzat» hartuko direnak, Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuen ezarritako prozeduraren arabera biltzen eta prozesatzen direla.



- Udalerrietan prestatutako puntu garbietan (Garbiguneak) uzten diren gailu elektriko eta elektronikoen kasuan, puntu garbi horrek emandako edo sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da non egiaztatzen den entregatutako gailuak Gailu elektriko eta elektronikoen hondakinei buruzko otsailaren 20ko 110/2015 Errege Dekretuen ezarritako prozeduraren arabera prozesatuko direla. Utzitako ekipoak identifikatu beharko ditu dokumentuak, baita nork entregatu dituen eta nondik datozen ere.
- B) Dirulaguntzako jarduketek eraikuntzako eta eraispenerako jarduketak eragiten badituzte, honela justifikatuko da:
 - Jarduketak proiektua edo memoria teknikoa daukanean, teknikari eskudunak sinatutako hondakinak kudeatzeko azken txostena aurkeztuko da, non sortutako hondakinen kantitate totala bilduko den, LER kodeen arabera sailkatuak, baita helburuko erakunde kudeatzaileen ziurtagiria ere, non instalazio bakoitzak lortutako balorizazio ehunekoa adieraziko den, betiere aplikatzekoa zaion araudia eta I. eranskinaren «Hondakinen kudeaketa» apartatuan adierazitakoa betez. Balorizatu ezin daitezkeen hondakin arriskutsuak ez dira kontuan hartuko helburu hori lortzeko. Honako hauek aurkeztu ahaliko dira erakunde kudeatzaileen ziurtagiri gisa:
 - JKD jarraipen eta kontroleko dokumentuak; edo
 - Baimendutako kudeatzaileak sinatutako ziurtagiria hondakinen tipologiai eta hurrenez hurrenko kudeatutako kantitateak zehaztuz; edo baita ere
 - Hondakinak identifikatzeko dokumentuak.
 - Egin beharreko jarduketa proiektu edo memoria bat egiteaz salbuetsita dagoenean, eta hondakinak udalerriek prestatutako Garbiguneetan utzi direnean, Garbigune horrek emandako edo sinatutako dokumentu bat aurkeztu beharko da non egiaztatzen den utzitako hondakinak balorizatu egingo diren eta I. eranskinaren «Hondakinen kudeaketa» apartatuan eskatutakoa beteko dela. Dokumentuak utzitako hondakin mota adierazi beharko du, eta, horrekin batera, nork utzi duen, zein obratetik datorren eta balorizatua izango ote den.

Horrez gain:

Eraikuntza-hondakinak bereiziko dira ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuko 8. eta 9. artikuluetan adierazitakoari jarraikiz.



Hondakinak obran bertan balorizatzen badira, pertsona esleipendunak memoriaren barnean sartuko du balorizatutako kantitateei buruzko informazioa, LER kodeen eta erabilitako baliabideen arabera sailkatuta (instalazio mugikorra, kudeatzailea, etab.).

Hondakinetatik eratorritako agregakin birziklatuak erabiltzen badira, pertsona esleipendunak material horien erosketa egiaztatzeko dokumentazioa sartuko du memorian, material mota eta kantitatea adierazita.

Amiantozko hondakinak sortzen badira, ongi tratatzen direla justifikatu beharko da, amiantozko hondakinak sortzen diren tokitik hondakinak kudeatzeko tokira eraman behar direla aldez aurretik jakinaraziz eta mugimendu horiei lotutako hondakinen lekualdatzeak identifikatzeko dokumentuak aurkeztuz, Estatuko lurraldean hondakinen lekualdatzea arautzen duen ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretua aplikatuz.

- l) Egin beharreko jarduketa tipologiaren arabera jarduketan ondoren lortutako energia-aurrezpenaren justifikazio-fitxa (1. mota Ekipamendua edo 2. mota Argiztapena), EEE webgunean eskuragarri dagoen Excel formatuko ereduaren arabera.
- m) 1. motako jarduketetarako (Ekipamendua) ekipamenduen eta etxetresna elektrikoek (zaharrenak zein egungoenak) EPREL energia-efizientziako etiketak aurkeztu beharko dira, halakorik izanez gero. Ondoren, etiketa horren irudiak erakusten dira, adierazgarri gisa:

2025eko uztailaren 9a, asteazkena

Anterior
etiqueta energéticaNueva
etiqueta energética**Código QR.**

Escaneándolo se accede a más datos sobre el producto.

Clase energética.

Señala el grupo en el que está encuadrado el producto etiquetado, de la A a la G. Se elimina las subcategorías de A: A+, A++ y A+++.

Consumo anual de energía.

Muestra el consumo energético ponderado en kWh

Pictogramas.

Destacan características del aparato eléctrico; volumen, expresado en litros (L), ruido medido en decibelios dB y la clase de emisión de ruido en una escala de A a D.

Aurrekoa gorabehera, organo instruktoreak akreditazio- eta justifikazio-jarraibide osagarriak lantzeko aukera izango du, jarduketaren konplexutasunak edo laguntzaren zenbateko handiak hori eskatzen dutenean.